

Joxemi Zumalabe

ipurtargiaren
itzal luzea

Lorea Agirre

eu sk al du n o n
Egunkaria

Joxemi Zumalabe Goenaga (Donostia, 1950-1993) euskalgintzako eta herrigintzako eragile funtsezkoenetako bat izan da. Kazetari, marrazkilari eta euskal prentsaren kudeatzaile eta enpresaburu, bai eta euskalgintzako pentsalari eta bidegile ere. Jose Migel Zumalabe kultur eragile eta pintorearen semea izaki, etxetik jaso zuen euskaltasunaren eta abertzaletasunaren kontzientzia. Karmele Esnal eta Elbira Zipitria andereño zituela, ikastola klandestinoetan hasi zituen ikasketak, eta gero Santo Tomas lizeo sortu berrian batxilergoa egin. Hamabost urteko nerabe zela hasi zen *Zeruko Argia*-n idazten. 1968an, arkitektura ikasketei ekin zien Bartzelonan, baina gogoia Euskal Herrian zuela-eta, ikasketak utzi eta Donostiara itzuli zen. Borroka sozial eta politikoa jardun zuen, bai eta langile mugimenduan ere. 1979an, *Zeruko Argia*-ra egin zuen, astekaria krisi latzak jota zegoenean. *Zeruko Argia* bihurtu, talde berria osatu eta aldizkaria zulotik ateratzea izan zen 80ko hamarkadako lehen urteetako bere ahalegina. *Argia* eukarazko prentsaren bihotz eta motor bihurtu zuen, euskara hutsezko argitalpenen alde inor gutxik ezer ematen ez zuenean. Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) indartu eta etorkizunerako ildoak markatu zituen. 1988an, euskarazko egunkari baten aldeko lanean hasi zen, eta Joxemi izan da EUSKALDUNON EGUNKARIAREN bultzatzaile eta eragile nagusia. Bera gabe, ez genukeen ezagutuko gaur esku artean dugun euskarazko egunkari bakar hori. Euskalgintzan eta herrigintzan erreferente garrantzitsu bilakatu zen. EGUNKARIA sortu eta bi urtera hil zen, minbiziak jota, 42 urte besterik ez zituela.



© Egilea: Lorea Agirre
© 2003, EUSKALDUNON EGUNKARIA
I.S.B.N.: 84-931142-6-x
Lege gordailua:
Azala eta diseinua: Zirrimarra
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak

Joxemi Zumalabe

**ipurtargiaren
itzal luzea**

Lorea Agirre

AURKIBIDEA

Maitasun hutsunea baino handiago	9
Maitasun istorio bat	11
1950-1968	15
1968-1979	33
1979-1987	51
1987-1993	67
Pintore izateko desioa	83
Euskara nazio gisa	89
Urtez urte	93
Nor da nor	99

Maitasun hutsunea baino handiago

“Maitatua sentitzen naiz alde guztietatik eta neure barruan ez da kabitzen horrek sortzen didan poza”, idatzi zuen bere koaderno beltzean hil baino egun batzuk lehenago. Maite genuen Joxemi. Bistan da. Hamar urte pasatu arren, haren hutsunea ez zaigu askori bihotzean kabitzen. Laster ohartuko zara, irakurle; maitasun adierazpenak ageri zaizkizu orriotan. Oharkabean maite genuen. Gure moduan. Biziz. Maite bainoago, bizi genuen. Goizetik goizera, gau eta guzti. Bizi-bizi. Ez ginen bizi. Bizi egiten genuen. Dena elkarrekin. Dena taldean. Ordu asko ziren eta denbora ematen zuen hitz egiteko, pentsatzeko, eztabaidatzeko, adosteko, erabakitze... lanean edo jolasean ari ginen bitartean. Orain, hamar urte geroago, ezer ez da berdin. *Argia*-n, EGUNKARIAN, euskal prentsan oro har asko aurreratu da hamar urteotan. Egiteke geratzen zaiguna ahazteko lain seguruen! Joxemi Zumalaberi buruzko liburu honek aukera paregabea eskaintzen digu azken hamarkadei errepasoa egiteko, haren bizitzari jarraiki. Liburua lekukoen testigantzez osatuta dago. Mosaiko baten moduan, piezaz pieza osatuz doakigu Joxemi. Eta, aldi berean, sekula osatzen ez. Joxemi ageri da lekukotasun bakoitzean. Joxemi da horien guztien osotasuna. Eta, aldi berean, beste mila Joxemi falta zaizkigu. Mila lekukotasun. Mila hitz eta pentsamendu gehiago. Mila marrazki... Liburuan dagoena Joxemi da, beraz, baina Joxemi ez da liburu hau. Lekukotasuna eskaini duten askok hori senti dezakete: Joxemiren alde berriak deskubritzea batetik eta ezagutzen zuten horretan dena agerrarazi ez izana bestetik. Arrazoi bategatik edo besteagatik ageri ez diren lekukoek ere izango dute zer esana Joxemiren gainean. Garbi daukagu esateko asko geratu dela, eta beste patxada eta lasaitasun batzuk beharko direla esan beharreko guztiak esateko. Baina garaian garaikoa. Eta ondorengoei aurrekoa. Aurrekoen ezagutza transmititzea. Maddi eta Jon seme-alabei, euskal prentsan ari den kazetari gazteari nahiz euskaigintzan diharduen militanteari. Joxemik utzitako

hutsunea maitasun hutsunea baino handiagoa da ordea. «Aitatxo galdu dute Maddik eta Jonek. Joxemi Ostaizkak eta lagunok. Eta gizon handia euskaldunok», idatzi nuen bera hil eta hurrengo egunean EGUNKARIAN. Gizon handia bere isilean. Gizon handia bere apaltasunean. Gizon handia euskalgintzan. Gizon handia herrigintzan. Proiekzio handiko gizon sendoa genuen Joxemi. Agortzen ez zen ideia iturria. Gogoetarako gaitasun aparta, irudimen eta sormen harrigarriak eta horiek guztiak modurik errazenean adierazteko gaitasuna. Adierazpenaren ondoren zetorren ekimena: gu guztiok norabide berean lanean jartzeko abilezia eta abiatutako lanari eusteko adorea. Gogaide, lagun, konplize, burkide, lankide, adiskide, buruzagi... maitale, aita, maketatzailer, txofer, marrazkilari, diseinatzailer, kudeatzailer, enpresari... Langile eta enpresari. Militantea. Gizon osoa. Nik neuk, esan dezaket ez dudala bera bezalako beste bat topatu. Behin eta berriz harritzen ninduen. Hainbat urtetan hain gertu eta elkarrekin hainbeste ibili ondoren, uste duzu badakizula nolakoa den zure laguna. Ezagutzen dituzula bere erreakzioak, bere pentsamenduak... badakizula zer esango duen. Ez zen Joxemiren kasua. Bere erre-kurtsoek, bere gaitasunek Joxemi berri bat osatzea lortzen zuten estualdi bakoitzean. Krisi bakoitzean Joxemi berri eta osoago bat agertzen zitzaigun. Lan eder honetan daukazu, irakurle, gure Joxemi. Maite genuen Joxemi.

Iñaki Uria

EGUNKARIAKO Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkaria

Maitasun istorio bat



«Joxemi nahiko pribilegiatua izan zen. Zer bizitza bizi aukeratu ahal izan zuelako neurri handi batean, bere ondorio guztiekin. Eta hori egin duela ezin du edonork esan. Aukera asko izan zituen bizitza konbentzionalagoa eta erosoagoa bizitzeko, baina barrenak beste zerbait eskatzen zion». Joxemi Zumalabe 42 urte besterik ez zuela hil zen, minbiziak jota. Euskararen, euskal kulturaren, euskal prentsaren eta oro har herrigintzaren aldeko borrokan dena eman ondoren zendu zen. Baina zer zen Josu Landa adiskide eta gogaide minak aipatzen duen barrenak eskatzen zion hori?

1993ko urtarrilak 12 zituen Joxemi hil zenean. Sabeleko minbiziak irentsi zuen. Oinazeak oso gazterik hasi zen sufritzen, bihotzerrea oso sarri, digestio mintsuak maiz. Gehienek bikarbonatoa hartuz gogoratzen dute. Sabeleko min kroniko hark bizitza ordenatua eskatzen zuen: dieta egoki bat, jatorduen ordutegia zaintzea, poliki jatea, atsedean behar bezala hartzea. Gaztarotik aurrera, justu kontrakoa izan zen Joxemiren eguneroko martxa urte luzeetan. «Joera gaizto bat zuen Joxemik: buruari bueltaka ibiltzeak adrenalina sortzen zion, eta gai zen lasai asko gau osoa lo egin gabe pasatzeko. Eta etortzen zen hurrengo goizean buruan bueltaka ibilitako analisiak eta proiektuak azaltzera: 'Gaur gauean hau pentsatu dut, eta beste hori egin behar dugu...'. Oso ondo, baina gau bat lo egin gabe, eta loa errekupeatu gabe gainera, goizean lanean jarraituko zuelako. Batzuei futbolak sortzen dien adrenalina Joxemiri buruari bueltak emateak sortzen zion». Eguneroko lanak, proiektu berriek, egin beharreko urratsak asmatu beharrak, *konspiratzeak* oro har, biziarazten zuten Joxemi.

Josuk *Argia* aldizkariaren garaiko anabasa du gogoan. Lo gutxi egiten zuten, eta askotan baldintza kaskarretan: *Argia*-n bertan, lastaira zaharren batean, edo ordenagailuaren gainean, nekearen nekez. Eta jan ere beti ezorduetan. Kafesneak, bata bestearen atzetik. Zigarroa zigarroaren ondotik. Bazkaltzeko, igual bi pintxo, eta horiek korrika eta berandu. Erlojurik ez lanean ari zirenean. Bi gaupasa sistematikoki egin beharrekoak zirela esaten zuen Joxemik, aldizkaria aterako bazen. Igandeetan, gurasoenera egiten zuen. Bainuontzia urez goraino bete, eta han egongo zen luzaz. Bazkaldu ondoren, siesta luzea. Koro arrebak gogoan du amak nola esaten zion: «Joxemieltxo, horrela segituz gero, gazterik hilko zara». Hizketa modu bat besterik izan ez zitekeena, egia bihurtu zen.

Lana bizitza bera zen Joxemirentzat. Ez zen zortzi orduko funtzionario lana egiteko jaio. Aitzitik, lana biziera bat zuen, pentsaera bat. Horrek bizi zuen. Bizitza pertsonala, lana eta egin beharreko proiektuak nahas-mahas bizi zituen. Lankideak adiskide zituen, eta adiskideak lankide egiten zituen. Taldeko gizona zen, eta taldean eman izan zuen bere onena. Soldatarik gabe lan egin zuen urte askoan. Joxemari Ostolaza adiskide eta gogaideak ondo dioen bezala, «proiekturako biziz, eta ez proiektutik». Lan erosoak, dirua, etxe ederra, auto bikaina, horiek baino ordain sari ederragorik badago munduan. «Jende gutxi izan du, nik orain bezala, jendearen maitasunaren adierazle hain argigarriak jasotzeko aukera. (...). Maitatua sentitzen naiz alde guztietatik, eta neure barnean ez da kabitzen horrek sortzen didan poza. Gainezka egiten dit emozioak, eta negarrez urtzen naiz. Nire bizitzaren kapitalik handiena, nire inguruan sortu zaidan laguntasun oparo hau dela sentitzen dut. Oharkabea aberats sentitzen naiz». Joxemiren testamentua, hil baino hilabete lehenago idatzi zituen hitzok.

Gaixotasun mintsuak luze jo zuen. EGUNKARIA sortu eta bi hilabete eskasera egin zioten lehen ebaketa. Hil edo bizikoa. Bigarrena, handik hemezortzi hilabetera, eta hiru hilabeteren buruan hil zen. Azken aldian ezin zen mugitu. Jan ere oso xehe egiten zuen. Baina ez zuen penarik horregatik. Amorru handiena Jon seme jaio berriarekin ezin jolastuak ematen zion. «Hil baino lehen, esan zidan damu bakarra izan zuela: seme-alabekin gehiago ez egon izana», ondo gogoan du Ostaizka Irastorzak, Joxemiren neska-lagunak. Bazihoala ikusi zuen Joxemik. Ez

zekien zenbat iraungo zuen, baina bazekien hiltzera zihoala. Psikologoek esaten zioten garrantzitsuena etorkizunean pentsatzea zela, geratzen zitzaion denboran zer egin behar zuen planifikatzea. Eta koaderno berri bat hasi zuen, tapa beltzekikoa: umeekin zein plan, ingelesa ikasten hasi, bazterrean utzitako liburuak irakurri, EGUNKARIAREN historia idatzi, Josurekin marrazki liburuak egin garai batean bezala, gabonetako opariak pentsatu. Eta jendea maitatu. Horrelaxe utzi zuen idatzia bere eskuz. Esperantza izatea zen kontua, aurrera begiratzea. Eta horretan, etorkizuna begitantzen eta etorkizuna egiten, gaitasun berezia izan zuen beti Joxemik.

Azken hilabeteetako bizimodu ezindutik hurrengo irudia berritu nahi dugu: Joxemi etxeko egongelan dago, sofan erdi etzanda. Erietxean egonaldi luze bat egitetik etorri berri da. Seme-alabak ez ditu aspaldi ikusi. Etxera sartu da Ostaizka, Maddi eta Jonekin. Maddik marrazki bat dakar eskuan. Urduri dago, ez daki aitarengana nola hurreratu. Marrazkia gora eta marrazkia beheara, ez da isiltzen. Aitak marrazkia eskuetatik erauzi, eta besoetan estutu du. Jon txikiak, berriz, amaren besoetatik egin du salto aitarengana. Hirurak besarkatuta, sofan. Luze. Isilik. Ez Maddi, ez Jon, ez dira aldenduko aitarengandik arratsalde osoan. Lo ere aitari pega-pega eginda hartuko dute.

Aitazulo hutsak ziren Maddi eta Jon; Joxemiren kuttunetan kuttunenak. Halakoxea zen Joxemi, ezagutu zutenen begietan. Umezalea. Maddi jaio zenean, balkoian pankarta bat zabaltzea besterik ez zitzaion falta izan. Ordura arte umeak izatea ez zen bere planetan sartzen. Handik aurrera lagunei umeak egiteko eta egiteko ariko zitzairen eten gabe. Jolastia zen izaeraz. Jon Barandiaran adiskideak honako irudi hau du buruan: «*Argia*-n gaude, nor bere mahaian eserita eta lanean. Eta mahai azpitik ostiko ematen dit. Eta nik bueltatu. Segundo gutxiren buruan, lurrean borroketan gabiltza, mutil kozkorrak bezala. Eta bat-batean altxatu, arropak eskuaz apur bat lisatu, eta serio-serio kreditua negoziatzera joango da bankuko zuzendariarengana». Umeek bezala zekien gozatzen gauza txikienarekin ere. Ezer ere ez eta festa. Maddiren haurtzaindegiko andereñoek antzeko argazkia geratu zaie gogoan: Joxemi lurrean bueltaka, eta ume guztiak haren gainean. Berdin trajea edo txandala bazeukan jantzita.



1992 **M**addi eta Jon ziren Joxemiren kuttunetan kuttunenak. Eta umeak, berriz, aitazulo hutsak. Gaixotasuna zela-eta haiekin gehiago jolastu ezinak ematen zion amorru handiena.

Haurtzaroa eta nerabezaroa jolasean eman zituela esan ohi zuen, eta horregatik zela hain jolastia. «Beti emango zituen esplikazioak edo-zeren inguruan, eta bere portaerak ere esplikatu beharrean sentitzen zen». Josuk askotan entzun zion esaten gurasoek izugarritzko mesedea egin ziotela ikastolara lehenik eta Santo Tomas lizeo estreinatu berrira ondoren eramateagatik. Hain zuzen, giro hartan ernatu zen Joxemirengan bere ibilbide osoan bizirik izango zuen borroka: euskararen aldekoa. Borroka hori maitasunaren eta obligazioaren arteko erabaki bat izan zen. Eta horren inguruan eraiki zuen bere biziera eta pentsaera. Joxemirena, Martin Ugaldek esan bezala, «euskarekiko maitasun istorio bat» izan da.

1950-1968



Gizonak

beti darama izan den umea barruan. Joxemi helduaren begirada Joxemi umearenean hasten da ernatzen. Ez zuen haurtzaro arrunta izan, eta orduan bizi izandakoak balio erantsia ekarriko zion Joxemiri urteek aurrera egin ahala. Egin dezagun salto atzera. Mendearen erdi-erdian jaio zen Joxemi, 1950eko urriaren 14an. Zumalabetarra eta Goenagatarra zen aldi berean. Eta hori ez zen edozein izatea hamarkada haietako Donostian, Donostia euskaltzale eta abertzalean bederen.

Zumalabetarrak Urbietan kaleko 56an bizi ziren. Egur moztu berriaren usaina izaten zen etxe hartan. Joxemiren logelak atzeko patio-
ra ematen zuen, eta bertako leihotik sartzen zen etxepean aitona Bernardok zuen aroztegiko usaina. Etxea aitonak egina zen. Lehen solai-
ruan Joxemi-eta bizi ziren, eta bigarrenean lehengusuak. Inondik ere etxegintza familia zuen Joxemik. Aita matematikaria eta aparejadorea zen ikasketaz, eta etxegilea lanbidez. Aitaren aita, delineatzailea. Beste aitona, arotza, etxegintzan ere ibiltzen zena. Amaren aldeko amonaren familia ere, Arteagatarrak, harginak ziren. Eta denak Donostiakoak. Donostiarrak.

Etxe oneko familia zen Zumalabetarrena. Ama, Axentxi, maistra zen ikasketaz, inoiz jardun ez bazuen ere. Koro, hiru urte zaharrago zen arreba, eta Joxemi ziren seme-alaba bakar. Aita, Jose Migel, kultur eragile handia zen. *Zeruko Argia* aldizkaria berpizten eta ikastolak sortzen, batez ere Santo Tomas lizeoa, lan handia egin zuen. Pintorea ere bazen. Ez nolanahikoa, gainera; sariak bat baino gehiago jaso zituen. Oteiza eta



1950

Joxemi, hobeto esan, Joxemieltxo, bizpahiru hilabeterekin, amaren besoetan. Ama-semeen arteko harremana berezia, maitakorra eta oso estua izan zen beti.

beste artista batzuk gaztetako lagunak zituen. Igande goizetan, berriz, eguraldi lehorra lagun, oso sarri joaten zen tramankuluak hartuta pintatzera. Joxemik ere txikitatik agertu zuen pintatzeko grina, eta oso umea zela jaso zituen lehen pintura artistikoko eskolak. Bistako denez, Joxemirenean pintatzea oso gauza baloratua zen.

Euskaltasunean eskolatu

Baina, ziurrenik, baliorik handiena euskaltzale izateak zuen. Gurasoak euskaltzale eta abertzale sutsuak ziren. Ez ziren, hala ere, EAJko kide inoiz izan. Ama gaztetan Emakume Abertzale Batzakoa izan zen, baina ez zuen konfiantza handirik politikariengan. Telesforo Monzon zen salbatzen zuten bakarretakoa. Asko miresten zuten. Aita gerra aurretik Bergaran ibili zen irakasle, eta han ezagutu zuen. Amak Monzonen emazte Maria Josefarekin ere izan zuen tratua. Korok gogoan du sinpa-

tia handiarekin hitz egiten zuela hari buruz. Koldo Mitxelena eta Karlos Santamaria lagunak zituzten, eta tarteka biltzen ziren afaritan. Txillardegi eta Rikardo Arregi ere behin baino gehiagotan ikusi ditu euren etxean Korok.

Familia giro horrekin, Joxemi eta Koro txikitatik eskolatu ziren euskaltasunean. Euskal kutsua zuten ekitaldi guztietara eramaten zituzten gurasoek: Poxpolin jaietara, Gipuzkoako Aldundiak antolatu ohi zituen euskarazko idazketa lehiaketetara, Santo Tomas eguneko antzerki saiora eta Aberri Egunetara. Korok gogoan du Jose Antonio Agirre lehendakariaren hiletetan izan zirela Donibane Lohizunen. Asteguna behar zuen izan, eskola huts egin baitzuten. Iparraldera maiz egiten zuten. Aitaren anaia osaba Agustin, idazle eta itzulzatilea, Donibane Lohizunen errefuxiatu zen 50eko hamarkadaren azkenaldian. Emaztea

eta seme-alabak Donostian zituen, eta haiekin eta gurasoekin larunbat askotan joaten zen Joxemi Iparraldera.

Familiaren eguneroko martxa ohikoa zen. Otordu guztiak elkarrekin egin ohi zituzten. Sarritan, afalondoan gaueko hamaiketan irratia bueltan jartzen ziren eta Paris irratia sintonizatzen zuten atzerriko berriak jakiteko. Jatorduetan elkarriketa asko izaten zela gogoan du Korok. Kristautasuna, justizia soziala, euskaltzaletasuna, zuzentasuna eta horrelakoak asko aipatzen zizkieten aita-amek. Solasaldi haie-tan, aita Joxemiri maiz aipatzen zion San Ignaziok idatzita utzitako pasarte bat. «Zerbait garbi ikusten bazuen, zera esaten zuen: 'Yo esto lo tengo que hacer'. Han ez



1951 **Z**umalabetarrak oporretan joan izan ziren. Beasaingo Astigarreta auzoko baserri batera egin zuen lehen bidaia Joxemik. Argazkian, Koro arrebarekin ageri da, urtebete inguru duela.

zegoen aitzakiarik, Joxemiel. Egin behar bazuen, egin egingo zuen». Semearentzat asmo handi eta urrunak zituen aitak.

Amaren samurtasun bera zuen Joxemik. Ume gozoa zen, laztan jaso zalea. Eta oso ama zuloa, bai umetan, bai handitan. Kozkortu ondoren ere, bazkalondoan, jaten bukatu orduko, amari magalean eseriko zitzaion, ume handi eta mainatsu bat bezala. Zer gehiago nahi zuen amak! Ama-semeen arteko harremana oso berezia izan zen beti. Maitakorra, eta benetan estua.

Bazen funtsezko beste kide bat familian: Pilar Garmendia neska-me, gerra aurretik, Joxemiren gurasoak ezkondu baino lehenagotik, etxean zerbitzatzen zuena. Urnietako Larburu baserriko alaba zen. Emakume isila, atsegina. Errieta egiten ere bazekien, baina *bere* bi umeen apetak ase arteko onik izaten ez zuena. Bigarren ama bat zen bi anaia-arrebentzat. Baina amarena zen bezalaxe, Pilarren kuttuna ere Joxemi zen; *Joxemieltxo*, hobeto esan. Hurrengo pasartea horren argigarri: Joxemi, gurasoen etxea utzi eta lagunekin bizitzen jarri zenean, tarteka gurasoenera joaten zen lo egitera. Pilarrek ez zuen inoiz Joxemi agertuko zenaren esperantza galtzen, eta gauero-gauero ohea irekitzen zion. Amak esaten zion, «Pilar, baina, ez da etorriko-eta». «Badaezpada ere», Pilarrek erantzun.

Joxemi hiru urterekin hasi zen ikastolan. Karmele Esnal andereñoak Artzain Onaren plazan zuen lokalera joaten zen egunero. Ikastola klandestinoak zen; eskola ematea legezko bazen ere, euskaraz izateak egiten zuen ezkutuko. Bi urtez ibili zen bertan. Handik, bost urte betetzear zituela, Elbira Zipitriaren etxera pasatu zen, Parte Zaharrera. Lau urte egin zituen bertan, bederatzi bete bitarte. Arreba eta biak joaten ziren eskutik hartuta Zipitriarengana. Eskolak osatzeko, Felitxu Eraso andereño lapurtarrak frantsesa erakusten zien, eta azken urtean egunero gaztelaniazko klasea izaten zuten ordubetez. Zipitriaren eskolek euskaraz izatea ez zuten bereizgarri bakar: irakasteko modua ere aurrerakoiagoa eta askeagoa zen gainerako eskolen aldean.

Joxemik Zipitriarekin ikasi zuen irakurtzen, idazten eta kontuak egiten. Horretarako, *Martin Txilibitu*, *Kristau Ikasbidea* eta Baionan argitaratutako euskarazko beste libururen bat zituen lagun. Abestiak ere ikasten zituzten, eta horietako bat hil arte izango zuen oso gogoko: «*Oriko*

txoria Orin pakean da bizitzen, ango laré sasietan, ez da ura unatzen...». Letra saiatuarekin kopiatu zuen kantua zazpi urteko Joxemik. Koadernoetako orriak marrazkiz betetzen zituen. Bada bat, baso bat agertzen duena: arbolak mehar eta hostoak mardul. Alboan, andereño Zipitriaren oharra dago: «adañak baiño aundiagoko ostoak?». Zergatik ezin dira hostoak adarrak baino handiago izan? Basoa berde dakusa Joxemi umeak, berde eta oparo. Koadernoko azken orrian zigorra bete behar izan zuen, «ikas-tolako lanak egitean aréta aundia jañi eta ez da utsik egiten» lerroz lerro errepikatuz.

«Mendizabal Frutos, Zumalabe Goenaga, Erékarte Baríola, Arazola Arantzadi, Alba Orbegozo». Gelako ikaskideen abizenak idatzi zituen koadernoan Joxemi umeak, eta alboan bakoitzaren aitaren lanbi-dea jarri: sendagilea, etxegilea, ola nagusia, saleroslea, idazlea, irakaslea, argazkilaria. Ikastolako lehen umeak kalekumeak ziren, ez dago



1957

Aitarekin etxeko atarian, mutil koxkorra zela. Hainbat gaitan desberdin pentsatuagatik, oso harreman maitakorra izan zuten beti.



1958

Elbira Zipitria andereñoarekin Eguberri bezperan kalez kale irteten ziren kantatzera gelakideak. Eskuinekoa da Joxemi, jaiotzari heltzen diona.



1957

Zazpi bat urte zituenean osatu zuen koadernoak. Andereño Elbirarekin ikasi zuen Joxemik idazten eta kontuak egiten, ikastola klandestinoan.

zalantzarik; hirigunekoak, baina ez auzoetakoak. Familia euskaltzale eta hainbat kasutan dirudunen seme-alabak ziren.

Garai hartan, ez zen oso ohiko bidaiatzen ibiltzea, Donostiatik irtetea, baina Zumalabetarrak ateratzen ziren Gipuzkoara. Beti euskal giroko inguruneetara. Oso sarri joan ohi ziren Arantzazura, esaterako. Uda partean, opor labur batzuk egin izan zituzten Zumalabetarrek. Beasaingo Astigarreta auzoko baserri batera Joxemik urtebete zuela joan ziren, eta aurrerago, Larraitzen ematen zituzten hamabost bat egun. Trena lehenik, autobusa gero eta astoa zamatuta oinez ondoren, goiz osoa behar zen Larraitzera iristeko. Zumalabetarrak aitaren autoan joaten ziren.

Lehenengo autoa ez da ahazteko moduko kontua, gainera. Hurrengo irudia atxiki zaio Korori buruan: Renault 4 gris berri-berria aparkatu du aita etxeko atariaren aurrean. Jaitsi dira autoa ikustera Joxemi, Koro eta lehengusuak. Sartu dira barrura, eta Urumea ibaiaren inguruko errepiderako bidea hartu dute. Bihurgunerik gabeko bidean, aita azeleragailua sakatu eta abiadura bizian jarri du autoa. Haurrak, burua leihotik aterata, bibaka ari dira: «Azkarrago, aita, azkarrago!».

Azkar, haurtzaroko urteak joan ziren. Elbira Zipitriaren ikastolan ibili eta gero, halabeharrez gaztelaniazko eskolara joan behar izan zuen Joxemik, Sagrado Corazon ikastetxe erlijiosora. Urtebete baino ez, hala ere. Aita ezin eraman zuen heziketa haren gogortasuna eta gaztelania hutsez izatea. Hori konpondu aldera, hurrengo ikasturterako berak eta Karlos Santamariak Santo Tomas lizeoa sortu zuten, jendearen artean bonuak salduta lortutako diruarekin. 1960. urtea zen. Joxemik hamar urte betetzear zituen. Batxilergoko lehen maila dozena bat haurrek hasi zuten. Bigarrena, Santamariaren seme gazteena, Antton, sartzeko propio sortu zuten, lauzpabost ume ez bazeuden ere.

Amaran izan zuen lehen egoitza lizeoak. Irakasleak ikasleak adina izango ziren kasik. Joxemiren amaren maistra titulua tiraderatik atera eta hautsa kendu zioten, legeak eskatzen zituen irakasleen titulazio baldintzak betetzeko. Aita ere ageri da irakasle gisa paperetan, eta hutsune bat edo beste bete zuen eskolak emanek. Goenagatarren, Gurmenditarren, Barriolatarren, Mitxelenatarren, Hernaniko Goiatarren,



1955/1957

Txikitatik eskolatu ziren
Euskaltasunean Joxemi eta
Koro. Ezkerrean, Santo Tomas
jaian, eta goian, euskarazko
idazketa lehiaketa batean ageri
da Joxemi.

Egigurendarren eta besteren seme-alabek estreinatu zituzten lizeoko ikasgela berriak.

Arregiren eta Saizarbitoriaren altzoan

«Gurea ez zen inondik ere kolegio normala», berretsi du Antton Santamariak. Anttonek eta Joxemik, gurasoak lagun handiak zirelako, txikitatik ezagutzen zuten elkar. Lizeoan hasi zirenean, lagun minak egin ziren. «Ikasle gutxi ginen; neska eta mutil elkarrekin, eta, gainera, giro euskaltzalea eta euskalduna zen». Horrek egiten zuen berezi, baita erdi klandestino izatearen xarmak ere. Ikasgaien herenak besterik ez zituzten euskaraz ematen, hala ere. Karlos Santamariak berak ematen zituenak,

baita Koldo Mitxelenarenak berarenak ere. Literatura ere euskaraz ematen zuten. Irakaslea, seminariotik atera berri zen Rikardo Arregi zuten. Joxemik eta bere lagunak Arregi zuten begiko. Gaztea zelako, eurek baino zortzi urte zaharrago baino ez. Lizardi ezagutuz hasi zitzaion Joxemiri *Capitán Trueno*-ren sukarra baretzen. Gainera, ikasgaitik haratago, euskal kulturaren eta Euskal Herriaren eremu ezezagunak eta orduan debekatuak erakusten zizkien. Anttonek gogoan du Joxemiren aitak presatatutako fitxa batzuekin irakasten ziela Arregik Euskal Herriko geografia: zazpi probintziak, ibaiak eta mendiak, hiriak eta bailarak. «Gu, donostiarrak, oso hiritarrak ginen, eta Arregiren bitartez deskubritu genuen bazela mundu euskaldun bat. Orduan inor gutxi irteten zen probintziara, eta mundu euskaldun hori zenik ere ez genekien». Euskarak berezko balioa zuen mundu baten berri eman zien Arregik.

Arregirekin harremana ez zen mugatzen eskola orduetara soilik. Ikastorduz kanpoko ekimenak ere izaten zituzten. Eta horietan, politikaren lehen zantzuak hasi ziren ikasten. Joxemiren ikaskide Rafa Eigurenek gogoan du nola behin Arregik arbelean idatzi zituen ETA eta PNV siglak, eta «Euskal Herriaren askatasunaren alde lanean bi erakunde horiek ari dira», esan zuen. «Guretzat, hori oso gauza subertsiboa zen; siglak idatzita ikuste hutsa harrigarria zen».

Lizeoan hasi aurretik, Donostiako Boy Scout-etan ibiltzen ziren bai Joxemi eta bai Antton. Ez zen euskal giroko mendi taldea, baina euskaltzale batzuk biltzen zituen. Horri alternatiba eman nahian sortu zuten lehen boy scout talde euskalduna. *Artzaiak* jarri zioten izena. Joxemik hamaika urte zituen. Antton, Rafa, Tomas Arozena, Luis Gorrotxategi, Jose Anjel Eizmendi eta Joxemi bera ziren taldearen barruan koadrila osatzen zutenak. Artzaietan gidari zutenetako bat, berriz, Ramon Saizarbitoria zen, Rikardo Arregiren adiskide mina. Adarrara batean, Erniora hurrengoan, Txindokira beste batean. Mendian ibiltzearekin batera, euskaltzaletasunean zihoazen sakonduz. Espainiako federazioak Olastin egin zuen biltzarrera ere joan ziren. Suaren bueltan kantutan eta kontutan ari zirela, *Artzaiak* izen hori zertara zetorren galdetu zieten. Euskaldunak zirelako, eurek. Orduan espainiarrak ez ote ziren, besteek. Eztabaida gogorra sortu zen. Azkenean, behintzat, federaziotik kanpo geratu ziren.

Mendirako taldea zena, ekintza gehiagotara zabalduz joan zen, nahiz Santo Tomas lizeoko ikasketak ordurako bukatuak izan. Haurtzaroa utzi, nerabezaroan sartu eta euskaltzaletasuna sendotuz zihoakien heinean, ekintzaileago bihurtu ziren. Horretan, ziurrenik, eragin handia izan zuen Saizarbitoriak. Hark egin zien sarbidea literatura berrienera, bereziki antzerkira. Jarrai antzerki taldeko kide zen Saizarbitoria, Iñaki Beobide eta enparauekin, eta, antzerki taldearen eskutik, mundu berri eta berrizale bat zabaldu zitzaien begien aurrean gazte nerabe haiei. Jarraikoen atzetik ibiltzen ziren; nagusiagoek zer egingo, berdin jokatzeko. Jarrai taldea puskatzaile gertatu zen orduko euskarazko antzerki kostunbristaren panorama estuan. Besteak beste,



1955

Zumalabetarrek Kontxako hondartzan zuten eguzkitakoa. Uda garaian, Joxemi egunero joaten zen hondartzara igeriketa eskolak jasotzera.

Camus eta Frisch taularatu zituzten. Kontuan izan behar da, mendizale-tasunak euskara gordetzen zuen bezala, antzerkia zela euskarazko kulturaren adierazpide nagusia. Euskaltzale gehien erakartzen zuen ekimena zen. Jarraikoen antzezlanek iskanbilarik sortu zuten euskaldun fededunen artean. Zer gehiago nahi zuen gazte koadrila hark. Gaztea beti berritzailearen alde. «Giro intelektual hori guk oso gertutik bizi izan genuen; entzuten genien Jarraikoei honetaz eta hartaz hitz egiten. Hori izugarria izan zen guretzat», dio Anttonek. «Nagusiagoek egiten zuten edozer zen erakargarria guretzat», berriz, Rafak. Berri gosea non ase bazuten. Jarraik Gabriel Arestiren *Beste mundukoak eta zoro bat* lana estreinatu zuenean, Aresti bera joan zen Donostiara, eta emanaldiaren ondoren denak bildu ziren: Jarraikoak, Artzaietakoak eta Aresti. Han ezagutu zuen Joxemik Aresti eta haren hizketa modu zakarra baina zorrotza.

Hasieran, Jarraikoen arri-muan, berdin ibiliko ziren aulkiak jartzen, edo figurazio lanak egiten. Geroago, antzezten ere hasi ziren Artzaietakoak, euren kasa. Rafak itzulitako *Lapurtxoa* haur antzezlanak, lehenik. Gero, Joxemik, Anttonek eta Jose Anjelek idatzi

Aurrerakoak

Aurrerakoak deitzen zieten Joxemiren koadrilakoei. Aurrera Donostiako Urbietakalean zegoen taberna baten izena da. Nagusiak Goenagatarrak ziren, Joxemiren koadrila kide Juan Luis pintorearen gurasoak. 60 eta 70eko hamarkadetan, euskaltzale eta abertzale asko biltzen zen hara, nagusiak halakoak zirelako. Etxekoandrea, Joanita Mendiola, presoentzako laguntza jasotzen ibiltzen zen; batean lo zakuak izango ziren, hurrengoan arropak. Tabernaren azpian soto eder bat zuten, eta han hamaika bilera eta ekitaldi antolatu izan dira. Joxemi eta koadrilakoak han izaten ziren egunero, sotoa nahierara erabiltzeko libre izaten zutelako: bileretarako, musika jotzeko edo guatekeak egiteko. Horrezaz gainera, Joanitak inguruko kroketarik onenak prantatzen omen zituen. Tabernaren izena hartu zuen Joxemiren koadrilak, azkenerako.



1959 **L**arraitzen, hainbat udatan hamabost egun egin zituzten Zumalabestarrek, Lhango bentan ostatu hartuta. Horregatik zuen oso leku kuttuna Joxemik.

zuten *Makina* izenekoa estreinatu zuten. Zehazki, 1967ko uztailaren 25ean, Kursaal zaharreko sotoko areto batean. Idatzi, arratsalde batean idatzi zuten, Joxemiren etxean; eta entseguak, Aurrera tabernako sotoan eta kaputxinoek *Zeruko Argia* egiten zuten Okendo kaleko lokalean egin zituzten. «Tintinen Dupont & Dupond pertsonaia bikien formula hori kopia genuen». Garrantzia kentzen dio Anttonek. Umorezko antzezlan txiki bat zen. Makina bat azaltzen zen agertokian, Joxemik berak eta Joan Luis Goenagak egindakoa. Estreinaldia jaialdi baten barnean izan zen, eta euren emanaldiaren ondotik Gurmenditarrak Beatlesen kantuak eta Nemesio Etxaniz *a cappella* kantatzen atera ziren. Bigarren emanaldia Hernanin izan zuten.

Antzerkiaren kontu horretan, Saizarbitoriaren eta Beobideren laguntza zuten, baita Mikel Forcadarena ere. Forcada dekoratzailea zen lanbidez: Madril ibilia zen filmetako dekorazioak egiten. Jarrai antzerki taldean, horretan aritzen zen. Artezale amorratua zen Forcada.

Artzaietakoen artean, bi izan zituen jarraitzaile zintzoen: Joxemi bera eta Juan Luis Goenaga. Biek zuten arterako joera. Eskolaz kanpoko ekimen horietan, Forcadak arte berriena azaltzen zien; larunbat arratsalde batez, lizeoan bertan, Picassoren lana azalduko zien, esaterako. Oteizak eta besteek Gaur taldea sortu zutenean, 1966an, ez zuten erakusketa bakar bat huts egingo; ez, behintzat, Joxemik. Zumetak 1967ko Euskal Pinturako Sari Nagusia irabazi zuenean Donostiako udal-etxeko sotoan paratu zuen pintura-eskulturarekin, txora-txora eginda geratu zen.

Ahulak, rock erritmoan

Mendia, literatura, antzerkia, artea, baita musika ere. Musikazaleak ziren. Musika berriaren zaleak, nola ez. Euskarazko rock talde bat osatzea erabaki ere erabaki zuten. Goenaga jarri zuten baterian, Xabier Laskibar eta Antton Sanz gitarretan, eta Rafa Sainz de Murieta abesten. Azken hau ez zen euskalduna, eta Joxemik berak ematen zizkion euskarazko klaseak Aurrera tabernan. Joxemi azpiegituraz arduratzen zen: gitarrak lortu, afixak egin. Antton, kantuak aukeratzeaz: Troggs, Beatles eta, oro har, Radio Carolina emisora piratan entzuten zuten musika. Gero, Joxemik eta Anttonek euskarazko hitzak jartzen zizkieten kantuei. Troggsen kantu batek neska batekiko maitemina adierazten bazuen, Joxemik eta Anttonek «Egia bilatu nahi dut ta ez dut aurkitzen...» ego-kituko zuten. Beatlesen *Here, there and everywhere* kanta gehixeago errespetatu zuten: «Han, hemen eta toki guztietan». Ahulak jarri zioten izena taldeari. Ez zuen asko iraun, hiruzpalau emanaldi emateko adina.



1966 Hamabost urte zituela, 'Zeruko Argia'-n argitaratu zuen lehen artikulua Joxemik, 'Hemen, gazteagoak' izeneko sailean.

Guateke eta festak egiteko aukerarik ez zuten ahal zutela galtzen. Bazuten modua, gainera. Barriolatarrek Aieten zuten txaletean biltzen ziren. Artze anaiekin ere harremana egin zuten, eta izan ziren pare bat guateke txalaparta hutsezkoak. Ez zen ezer modernoagorik.

Joxemik hamabost urte zituela, 1966an, Rikardo Arregiren eskutik *Zeruko Argia*-n idazten hasi zen, Antton eta Rafarekin batera. Arregik eta Saizarbitoriak *Gazte naiz* izeneko saila zuten, eta Joxemirentzat-eta *Hemen, gazteagoak* izenekoa sortu zuten. Zazpina artikulua idatzi zituzten. Joxemik ekin zion sailari. Idatzi zituen artikuluetako bat Juan Luis Goenaga lagunarekin batera egin zuen. 'Gora melenak', zioten biek hala biek. 'Lengoan ikusi nituan zahar batzuek melenadun baten atzetik parrez eta kritikatzten; arrazoinketak jartzen gainera, zikiñak eta itxusiak zirela esanez, eta gero, «oraingo gazte jende au», esanda trankilduta



1957

Gurasoengandik jaso zuten Joxemik eta Korok euskararen aldeko kontzientzia. Gurasoak euskaltzale eta abertzale porrokatuak ziren.

joan ziren'. Horrela hasten da idatzia. Joxemi orduantxe hasi zen txima luzeak eramaten, eta bere hamasei urteko talaiaitik hori estetika hutsetik haratago zegoen zerbait zela sentitzen zuen. Jarrera iraultzaile baten lehen adierazpena zen inondik inora: 'Bai jaunak, nire melena nire askatasuna da', aldarrikatzen du idatziaren amaieran.

Ez zen hori, hala ere, Joxemik *Zeruko Argia*-rekin zuen lehen harremana. Etxean harpidedun izateaz gainera, urte batzuk lehenago Santo Tomas egunean-eta aldizkaria banatzen ibili ohi ziren kalean. Izan zen udaltzainak atxilotu zuenik ere; galdetu, bestela, Rafari. Geroago, aldizkariako nazioarteko sailean hasi ziren idazten, nonbait euren buruari zahartuxe iritzita aurreko sailarekin jarraitzeko. Idatzi baino gehiago itzuli egiten zutela aitortu du Rafak. «Hitzordua Alderdi Ederren egiten genuen. Rikardo etortzen zen makuto batekin, eta *Nouvel Observateur* aleak ateratzen zituen. Nork zein artikulu *fusilatu* erabakitzen zen. Itzuli eta argitaratu egiten ziren. Horrelaxe egiten genuen, pentsa. Baina guretzat *Zeruko Argia*-ko lan horiek guztiak oso garrantzitsuak ziren. Eta Joxemirentzat, areago».

Ez ziren hor bukatzen egin beharrekoak. Denbora libreari etekina ateratzen bazekiten. Horren adibide da hurrengoa: arratsalde oso bat eman zuten Joxemiren etxean Jose Luis Zalbide ETako presoari Martutenera bidaltzeko ehunka gutun idazten. Gutunak baino gehiago, gutun-azalak. Kontua zen preso arrunt gisa tratatzen zutela, eta horregatik «Jose Luis Zalbide, preso político» zioten gutunak ahalik eta gehien bidali behar zirela kartzelara. Lur argitaletxera ere joaten ziren tarteka, Saizarbitoriak eskatuta, liburuak kaxetan sartzera.

Ordurako, Santo Tomas lizeoko ikasketak aspaldi bukatuta zeuzkaten, batxilergoko laugarren mailara artekoa baino ez baitzuten egiten bertan. Hortik Goi Ikasketetarako Akademiara egin zuten. Han, Karlos Santamaria zuten irakasle. Santamariak tratu berezia ematen zien lizeotik zetozenei. Joxemi, Rafa, Luis eta Tomasentzat, Txarli zen besteentzat Don Carlos zena. «Matematikako ariketak fitxatxo batzuetan egiteko agintzen zigun, eta zuzendu eta nota jartzen zuen ariketaren gainean. Beti latinez: *bene, molto bene, benissimo*. Guri, berriz, euskaraz: ondo, oso ondo, bikain». Piper sarritan egiten zuten, arratsaldean bereziki. Zinemara joateko, askotan.

Ikasle kaskarrak ziren. Hala aitortu du Rafak. «Joxemik, besteok bezala, ikasten hasi baino aurreragoko lanak mila izango zituen». Aprobatuari neurria zeinen ondo hartua zioten kexatzen zitzairen Joxemiren ama. Ia arratsaldero Joxemiren logelan biltzen ziren, Pilarrek prestatzen zien meriendaren inguruan.

Uda izaten zen libreago ibiltzeko garaia. Zumalabetarrek Kontxan zuten eguzkitakoa Goenagatarrekin banatzen zuten. Joxemi-eta goizez joaten ziren, eta Aurrera tabernako familia, berriz, arratsalde. Joxemi eta arreba Ondarretako hondartzatik berrogeita hamar bat metrora itsaso barruan zegoen igerilekura joaten ziren, igeriketa estiloa hobetzera. Potinean eramaten zituzten igerilekura anaia-arrebak, lagunak itsasertzean zain geratzen ziren bitartean. Bai Antton, behintzat. Ioldiren igeri-

lekua zen. Ioldi hori oso ezaguna zen Donostian, igeriketa irakasle aparta ez ezik euskaltzalea ere bazelako.



1947

Pilar neskamea Joxemirentzat bigarren ama bat izan zen. Beti ibiliko zen Joxemik eta Korok zer nahi, hura eman nahian. Irudian, Koro du besoetan.

Arratsaldean, berriz, Falangek Anoetan zuen kirol eremura joaten ziren, hura baitzen igeri egiteko leku bakarra. Falangerena zenez, Karlos Santamariak semeari ez zion sekula utzi bazkide izaten, eta Joxemiren txartelarekin edo atzeko aldetik langa gaindituta sartzen zen barrura. Gogoan du hamar metroko jauzi ohola zegoela. Inor gutxik egingo zuen salto handik. Umeek gutxiago. Arratsalde osoan, igual heldu bat igoko zen, eta denak hari begira. Joxemi izan zen horietako bat. Besoak zabal-zabal, gurutze moduan jarrita, zutik egin zuen salto. Ez

zitzaizkion gutxi gorritu besapeak. «Tranpolina han zegoelako eta salto egitea posible zelako egin zuen salto. Hori demostratu nahi zuen». Ondo gogoan du Anttonek ausardia. Aitak San Ignazioz esaten ziona izango al zuen gogoan?

Bizitzaren kontraesanak

Nerabe koadrilak urrats askotxo egin zituen aurrera: euskararen defentsaren kontzientzia hartu zuten, euskal kultura berritzailearen alde lerratu ziren, politika ezagutzen hasi ziren, eta ideia sozial aurrerakoien alde jarri ziren. Horrek guztiak mundu berri bat eskatzen zuen, eta euren bizitzan sortzen zizkien kontraesanak azaleratuz joan ziren. Joxemiren kasuan Pilarrekikoa da argigarria. Pilar neskameak sukaldean bazkaltzen zuen; familiak, jangelan. Nola onar zitekeen hori, gurasoek justizia eta berdintasuna aipatua zietenean? Gainera, Pilar ama bat bezala maite zuten, neskamea izanagatik. Joxemik eta Korok elkarrekin hitz egin zuten zer edo zer egiteko, iraultza etxetik hasi behar dela pentsatuta. Baina, azkenik, Pilar jangelako mahaira ekartzea lege mugigaitz bat haustea litzatekeela iruditu zitzairen, eta Pilarrek ez zuela onartuko, gainera. Ez zuten aldaketarik eskatu, baina aurrerantzean Pilarri gehiago lagunduko ziotela erabaki zuten bi anaia-arrebek.

Oinarriak sendotuz zihoazen. Nerabearoa gainditzeaz zutela, euskalduntasunaren eta euskal kulturaren prozesu inizatiko bat egin zuten. Eta hori guztia, modernotasun gosez onduta. «Guk moderno izan nahi genuen. Eredu guztietan, gainera: literaturan, artean, musikan, politikan, janzkeran eta bizieran», gogo zaharrak berriro ditu Anttonek. «Baina modernotasuna ez zen posible euskaltzaletasunik gabe. Erabat lotuta zihoazen». Tradizioa utzi eta modernotasuna besarkatu zuten bezala, fedea alboratu eta euskarazko meza militanteki jarraitzetik ateo izatera pasatu ziren. Nemesio Etxaniz entzutetik, Ez Dok Amairuren diskoak jogailuan jartzera. «Gauza asko egiten genituen nagusiagoen arri-muan. Dena zen zuloak tapatzea, egin behar zena egitea. Scoutak euskaraz, antzerkia euskaraz, rocka euskaraz, idatzi euskaraz... Ez zen gauza organizatu bat; nahiko anarkikoa zen. Baina ekimen horien guztien helburua ez zen zerbait adieraztea: euskaraz egitea bera zen helburua».


Obligazioa eta maitasuna enbor bereko bi adar bihurtu zitzaizkion ordu-rako Joxemiri. Egia da edozertarako prest zeudela. Eta koadrila horrek, eta ingurukoek, osatu zuten gerra ondoren Donostian euskararen defentsaren kontzientzia hartuz joan zen lehen belaunaldia. «Nagusiagoengandik ikasi genuen», dio Rafak, «baina, azken finean, oso diferenteak atera ginen. Gu euskal kulturaren babesean hazi ginen, baina gaztetu ginenean, buru-belarri sartu ginen gehienok politikan». 1968ko udazkenean, Joxemik Bartzelonarako bidea hartu zuen, Arkitektura ikasketak hasteko. Gogoa, baina, Euskal Herrian zuen.

1968-1979



Ikasi, gutxi ikasi zuen Joxemik Bartzelonan. Gehiago ibili zen ikasle taldeetan borroka politikoak eta beste antolatzen. Borroka, baina, etxean egin behar zuela ohartu zen. Arkitekturako lehen maila gainditu gabe utzita itzuli zen Donostiara, 1969an. Aitak disgustu ederra hartu zuen, baina gogoa Euskal Herrian zuen. Eta Euskal Herrian giroa bero-bero zegoen. Ez zen urtebete Txabi Etxebarrieta hil zuela Guardia Zibilak; haren hiletetara mundu bat joan zen, eta mugimendu handia sortu zen, salbuespen egoera indarrean izanagatik. Etxebarrietaren hilketa oso gertaera mingotsa izan zen Joxemi eta koadrilakoen artean; besteak beste, ezagutzen zutelako. Hileta baino bi hilabete lehenago agertu ziren Etxebarrieta eta Iñaki Sarasketa Aurrera tabernara Joxemirekin-eta biltzeko. Etxebarrietak-eta bazuten Artzaiak taldearen berri eta zer ote zen jakiteko egin zuten zita Joxemirekin. Aurreratik irten eta pasioan ibili ziren, hizketan. «Lo que haceis es un trabajo de francotirador absurdo», esan zion Etxebarrietak Joxemiri, Artzaiakena antolatu gabeko ekimen kaotiko samarra zela pentsatuta. Joxemi ez zen oso ados, izan ere asko maite zuen bere kasara ibiltzea, inoren esanei amen egin gabe. Hala ere Etxebarrieta ez zen edozein gazteagoen begietan; hil eta gero, haren biografia eta poema bilduma kaleratu zuen ETAK, eta Kintxo Sarasolak gogoan du nola denek gorde zuten, altxor baten moduan. Baita Joxemik ere. Kintxo Joxemiren lagun min eta borrokakide izan zen 70eko hamarkadako lehen urteetan. Biak zeuden egoera berberean: ikasteari utzita, soldaduska egin zain, eta borrokan sartzeko gogoz.

Kantaldi legez kanpokoak emateko egitasmo bat jarriko dute abian, Imanol Lartzabal kantaria buru dutela. Joxemi, Kintxo, Mikel



1971

Bartzelonan arkitekturako ikasketak utzi, eta Donostiara itzuli zen. Imanol kantaria buru zutela, hainbat adiskiderekin batera herriz herri kantaldi ez-legalak ematen jardun zuen 1971 arte.

Arregi, Gabriel Gurrutxaga, Xabi Larrea, Mikel Intxausti, Joxerra Beloki, Itziar Salegi, Marta Barandiaran eta Joxemari Ostolazak osatzen zuten taldea, beste batzuen artean. Dozena bat lagun inguru bildu ziren; Aurrera tabernako giroko koadrilakoak batzuk, lagunak lagunak beste-tzuk. Helburua euskal kultura kalera ateratzea zuten. Azkueren kantute-giko abesti zaharrak berreskuratzen hasi ziren. Hartu gitarrak eta pande-roa, eta herrietako festetara joaten ziren kaleetan kantatzera. Baina hori egitea ez zen erraza. Euskaraz kantatzea debekatua baitzegoen. Lezon

eta Berastegin, Guardia Zibila atzetik jarri zitzairen, eta hanka egin behar izan zuten. Hori dela eta, kaleko ekitaldiak utzi eta herrietako lagun edo ezagunen bitartez bertako elkarte, parrokia eta antzeko lekuetan kantaldi edo bilera bereziak egiten hasi ziren, Añorgan, Billabonan eta Larrabetzun esaterako. Azken honetan Natxo de Feliperekin bildu ziren.

Entseguetarako astero biltzen ziren, eta azkenerako oso kantaldi berezia osatu zuten: lehen partean, Euskal Herriko historia jasotzen zuten kantuak abesten zituzten; bigarrenean, egokitzen ziren herrian zeuden arazoen inguruko bertsoak kantatzen zituzten; eta gero, debekatura zeuden hainbat kantu. Azkenik, debate bat egiten zuten entzuleekin. Kantuan oso txarra zen Joxemi. Berea antzerkia zen gehiago, eta antzezpen batzuk tartekatu nahi izan zituen kantaldian. Eta honako hau proposatu zen: Joxemik Aita Santuaren inguruan egindako bertso batzuk musikatu zituen Kintxok. Horiek kantatzen hasi, eta euretako bat gorbata eta trajea jantzita –Joserra Beloki gehienetan– publikoaren artetik oihuka hasiko zen kantaldiaren erdian, hura legez kanpoko zela eta euskaraz ezin zela kantatu esanez. Helburua jendea probokatzea zen, eta, lortu, lortu zuten.

Iraultza irakasle

Baina kantaldi eta antzerki kontuez gain, bazen lantzen zuten beste alderdi bat ere: prestakuntza ideologikoa. Astean bizpairu aldiz biltzen ziren irakurketak egin eta eztabaidatzeko. Marxismoa, iraultza soziala eta politikoa, eta horrelakoak. Horietan gidari Joxemi zen. Joxemi ordu-rako «ideologikoki nahiko aurreratua» zegoen. Ideologia kontuetan «ez zen edozein», Kintxok ederki daki.

Oraingo begietan, kantaldien kontu hori ETArenekin fronte kulturalaren barneko ekimena zen. Baina orduan gehienek, batzuk salbu, ez zeuden horretaz jakitun. Testuinguru orokor batean kokatzen zirela jabetzen ziren, baina ez inoren mandatutik zetorren ekimen bat zenik. «Lagunak ginen gehienak, koadrilakoak, edo ezagunak, eta oso modu naturalean antolatzen ziren gauzak, pentsatu gabe inongo organigramaren barruan ginenik», dio Marta Barandiaranek, gerora Joxemiren neskalagun izango zenak. Egia esan, ez dirudi mandatu handirik behar zenik garai hartan



1975

Ezkerrean dagoena da Joxemi, 'hippy' itxurarekin. Garai hartan apenas egin zuen argazkirik. Honako hau ezkontza batekoa da.

ekimenak aurrera abiatzeko. Berez sortzen ziren han eta hemen. Egoera ere halakoa zen: latza eta urgentziazkoa alde batetik, baina baita mugimendu handikoa eta horrenbestez baita esperantzazkoa ere. 1970ean Burgosko epaiketa abiatu zen, hamasei lagunen kontrako gerra-kontseilua. Salbuespen egoera ezarri zen berriro. Egoera asko korapilatu zen, lehen baino zailago zen kantaldiak egitea, eta urtebete eskasera desegin egin zen taldea.

Giroa oso politizatua zegoen ordurako, nahastua eta bero-bero. Egunetik egunera berotzen zen giroa, gero eta gehiago. Eta gauzak egiteko borondatea gazte askok zuen, antolatuta edo antolatu gabe. Askatasun egarria, borroka politikoa eta soziala buruan, belaunaldi oso bat prest agertu zen iraultzarako. Inoiz gertatu gabea gertatu zen: herriaren eta iraultzaren zerbitzuan jarri zen belaunaldi oso bat, bidean utzi beharreko guztiak utzita. Gaztedi berria, gaztedi gorria.

Jeronimoren borroka

Giro horretatik modu naturalean eman zuen hurrengo urratsa Joxemik. 1971n, ETAn sartu zen beste asko bezala. Aurreko urtean erakundea banatu berri zen: ETA V eta ETA VI. Joxemi seigarrenenera etorri zen, horrek biltzen zuelako militantziaren zatirik handiena. Donostia inguruko *sextakoek* jakin zuten bazela donostiar ikasle bat, Aurrera girokoa, argia zena eta borrokan sartu nahi zuena. Hitzordua Gernikako Arbola pasealekuan egin zuten. Gazte borrokalaria baten itxuraz agertu omen zen: bizarra eta txima luzeak, panazko galtza grisak, kremailearekiko *langile* jertsea, *txiruka* botak eta makutoa zintzilik. Klandestinitaterako ez zen piura egokiena. Batzuek, bohemio itxura zuela diote; besteek, zabarra zela janzkeran; beste batzuek, berriz, zabarretan zabarrena. Ezizena: *Jeronimo*. Gidari izateko dohainak bazituen, nonbait. Teoriko ona zela berehala konturatu ziren taldean. Ordurako nahiko mamitua zuen literatura ezkertiar eta iraultzailea gehientsuena. Eskolan ikasle kaskarra izanagatik, politikan sartu zenean hasi zen bete-betean ikasten: hartu liburua edo txostena, irakurri, azpimarratu, ulertu, memorizatu. Irakurle amorratua izan zen garai haietan. Maldarik ez gustuko bidean. Kintxok gogoan du egunero biltzen zirela liburuak eta irakurketak, eta ideologia eta taktika kontuak hausnartzera. Beste zereginik ez zuten. Joxemik egun osoa ematen zuen horretan: liberatu izan gabe liberatuta zegoen. Goizeko bederatzieta joaten zen Kintxo Joxemiren etxera. Hura esnatu —normalean lo egoten baitzen, goizeko ordu txikiak arte irakurtzen ari-tzen zelako—, eta han hasten ziren bezperan irakurritakoaren inguruko txostenak egiten. Ez beti, hala ere. «Joxemi ez zen oso diziplinatua, eta askotan irakurri beharrekoa ez beste zerbaitekin etorriko zen». Hau eta bestea. Hainbesteko jakin-mina zuen, edozer zitzaion interesgarri. Pilar arduratzen zen «mantenuaz eta horniketaz», baina bazkaldu nork bere etxean egiten zuten. Joxemiren etxetik pasatutako guztiek dute gogoan Pilar, baita Kintxok ere. Gurasoek zerbaitetan bazebilela, jakin, jakingo zuten, baina askatasun osoa ematen zioten Joxemiri, eta inoiz ez ziren kontu eske etorri. Bazkaldu eta gero, beti Aurrera tabernara kafesnea hartzera. Ez zuen inoiz huts egingo.

Joxemik *Herriak eta auzoak* atala zuen bere gain. Lana politikoa zen erabat: batzarrak antolatu, eztabaidak bultzatu, grebak eta manifak



1976

Bidaiak egitea gustatzen zitzaion. Parisen, Sardinian, Italian eta Holandan izan zen 70eko hamarkadan. Irudiotan, Amsterdamen ageri da.

antolatu, jendearekin harremanetan jarri, txostenak eta propaganda banatu... Horretaz gainera, *Minoen* ildo politikoa zehazteko prozesuan ere hartu zuen parte Joxemik, bereziki Gipuzkoako zuzendaritzara iritsi zenean. Minoetakoa zen. Hain zuzen, ETA *sextan* sartu eta gutxira, beste banaketa bat gertatu zen: *mayoak* eta *minoak*. Mayoek troskismoaren alde egin zuten, eta hortik Liga Troskista Iraultzailea sortu zuten. Minoek aukera abertzaleagoa egin zuten, eta ez ziren eredu batean definitu. Definizio falta hori zen minoen ezaugarrietako bat. Definitze prozesu bat jarri zuten abian, eta gutxi-asko eredu propio baten beharra aldarrikatu zuten, Sobiet Batasuna, Txina, Vietnam edo dena delako ereduak zuzenean erabili beharrean. Indefinizio hori definitzeko, Joxemik denetarik irakurri zuen: marxismoa, leninismoa, troskismoa, anarkismoa, maoismoa, komunismoa, sozialismoa. Joxemik pentsatzen zuen klasikoetara jo behar zela, iturrietara, eta ez eredu jakinetara, eta gero euren eredu propioa egin behar zutela. Joxemik bere burua anarko-komunista gisa lerratzen zuen. Azkenik, ez zen definizio prozesu hori burutu, minoak desegin egin zirelako, inon horrela erabaki ez bazen ere.

Oilaskoaren hegala

Tartean, gogoeta handiak eta teorizazio sakonak izan ziren. Baina *abenturarik* ere izan zen. Behin, ETako zuzendaritzak egin zuen bilera batean sukaldari lanetan ibili zen Joxemi. Menua, oilasko errea. Oilaskoa bi papertxo jarrita atera zuen mahaira: «ezkerreko hegala» eta «eskumako hegala». Hainbesteko banaketa eta bereizketak ematen zuen txantxa egiteko aukera.

Beste behin, jakin zuen Tolosako bi gaztek erakundean sartu nahi zutela. Hitzordua jarri zuten, tentu handiz jarri ere. Halako tokitan gertatu, gero autoan mendian gora joan, eta borda urrun batean gaua pasatuko zuten. Joxemi burua hanka artean ezkutatuta joan zen autoan, nora zeramaten ez jakiteko. Leihotik begira joan balitz ere ez zuen asmatuko non zenbilen, hain zen egun lanbrotsua eta iluna. Segurtasun neurri guztiak gutxi ziren halakoetan. Goizeko hamarretarako, bordan zen. Hasi zen bilera, hasi zuen Joxemik ideologiaren inguruko *lezioa*, materialismo historikoa eta beste aipatuz. Baina arazo taktiko larria sortu zitzaion:



1972 Soldaduska, Arakan lehenengo eta Loiolan ondoren. Kaporal-buru izendatu zuten.

tabakorik ez. Autoa hartu eta berriro behera, Jean beltza eroatera. Klandestinitateko segurtasun arau guztiak, pikutara.

Langile izan nahia

1972an, Joxemiri soldaduskara joatea tokatu zitzaion. Arakan egin zituen lehen hiru hilabeteak, eta gero Loiolan. Soldaduskatik bueltan, Ordizian hasi zen lanean, Gaztañaga galdarategian, delinea-tzaile. Seguran hainbat plano altxatzen ibili eta gero egokitu zitzaion Ordizian lan egiteko aukera. Aukera, nolabait, berak bilatu zuen, orduko gazte *iraultzaile* askok legeaz langile izan nahi zuelako.

Langile Komiteetan sartu eta borroka hori Goierrin eraman zuen aurrera, gehienbat. Langile Komiteek batzarren eta demokrazia zuzenaren aldeko apustua egin zuten, ordurako abian zegoen erakundetze joeraren kontra. Ez alderdi politiko, ez sindikatu: langileek zuzenean hartu behar zuten parte borrokan eta erabakietan. Joxemik esparru horretan lan ideologiko handia egin zuen; izan ere, komiteak ez ziren mugatzen lan eremura soilik: naziogintza, emakumeen eskubideak, antimilitarismoa, mogimendu anti-nuklearra, amnistia eta beste gauza asko ere aldarrikatzen zituzten.

Koro arreba Beasaingo institutuan zebilen irakasle, eta etxea elkarrekin eta beste bizpahiru lagunekin hartu zuten; lehen urtean Ordizian, eta hurrengoan Idiazabalen. Asteburuetan, Donostiara egiten zuten, baina baita astean zehar ere Joxemik sarritan; izan ere, neskalaguna, Marta Barandiaran, han zuen. Donostian, gauak gehiegi luzatzen ziren askotan, eta biharamunean apenas lorik egin gabe joaten zen lane-ra. Gaztañagako bulegoan komunean toaila lurrean bota, eta lo kuluxkak

egiten omen zituen. Langile kaskarra. «Baina ez zuen neurri gabe egiten, bazekien nola egin. Gainera, ez zuen gustuko lana; soldata baten truke zen», arrazoia eman dio Jon Barandiaranek. Soldataren truke lan egiteko ez zen jaio Joxemi; bai, aldiz, soldatarik gabeko lan militanteetan ordutegirik gabe ibiltzeko. Adiskide zaharrak ziren Joxemi eta Jon. Jon Joxemiren orduko neska-lagun Marta Barandiaranen anaia izaki, aspal-ditik zuten elkarren ezagutza. Ordizian, 1976 arte egin zuen lan; hiru bat urte, guztira. Gasteizko langileen sarraskia, urte horretako martxoan gertatua, Ordizian zela bizi izan zuen. Urte amaieran, jaioterrira egin zuen, lagun batek lana eskaini baitzion Egia Fotoconposición inprimategian. Lana ugari zela eta, Joxemik Jon eraman zuen berarekin. Jon anaia gazte gisa *adoptatu* zuela dirudi askotan. Joxemi zegoen leku askotan, Jon atzean zegoen beti.



1977

Apasionatua eta eskuzabala zen Joxemi gauza guztiekin, berdin maite izan zituen Aemakumeekin ere. Marta Barandiaran neska-lagunarekin ageri da argazkian.



1977 Juanjo Landa lagun minarekin eta Marta Barandiaran neska-lagunarekin Donibane Garazira egindako txango batean.

Hiru gizonezko, familia bat

Ordiziatik Donostiara itzulita, Ulia auzoan Juanjo Landa klandestinitateko lagunarekin batera jarri zen bizitzen. 1976an, etxea hartu zuten alokairuan. 1977an, Pello Iturain etorri zen hirukotea osatzeko. Iturain ere langile borrokan ibilitakoa zen. Elkarren artean oso desberdinak izanagatik, ondo konpontzen ziren, eta, gainera, bizi-filosofia antzekoa zuten. «Oso ezkertiarak ginen, liberalak, irekiak», gogoratzen du Juanjok. Ez ziren alferrik, ez, 68ko maiatzeko semeak. Jende asko pasatzen zen etxe hartatik. Juanjok argiki azaldu du: «Ohe gutxi eta koltxoi asko». Baina ez da azaleko kontua, benetan sistemaren eta burgesiaren familia ereduari alternatiba gisako *oasi* bat sortu nahi zioten. Iraultza etxetik hasten da. Eta, horregatik, hiruren artean etxebizitza bat erosiko dute 1980an. Hori ere Ulia auzoan. Joxemik areago eraman nahi zuen arau-hauste hura, eta diru kutxa komuna jartzea proposatu zien beste bi etxekideei. Saioak egin zituzten, baina ez zuen funtzionatu. Baina egia da Joxemi *Argia*-n soldatarik jaso gabe lanean ari zela, gurasoek emandakoez gainera

Juanjok eta Pellok emandakotik ere bizi zela. Horrekin ez zuten inoiz arazorik izan.

Komunaren ideia beste modu batera gauzatzen ere probatu zuten. Etxeko gelak ez ziren inorenak izango. Dena guztiona, jabego pribaturik ez. Logela bera izango zen hirurentzat. Juanjok atzera egin zuen, neska-laguna berarekin bizi baitzen orduan. Pello eta Joxemik altzariak desmuntatu, lastairak gela batean jarri, eta beste gelan trasteak pilatu zituzten. Ez zuten denbora asko iraun elkarrekin. Bat beti garbitzen ari zelako, eta besteak garbitu beharrik ez zuelako ikusten inoiz. Eta neskarrekin joaten zirenean, zer? Azkenean, nor bere txokora.

Jendea saldoka izaten zen etxe hartan. Bilerak egiten ziren bertan. Hirira zetozen musika talde askoren *ostatu* izan zen. Baina, halako batean, bukatu ziren kontu horiek ere. Pellok ez du ahazteko behin gertatua. «Ordu txikitan itzuli ginen etxera Juanjo eta ni, eta etxeko atea ezin ireki, atearen kontra norbait lo zegoelako. Korridorea, sukaldea eta logela guztiak jendez beteta zeuden. 45 lagun zeuden gurean lo!». Hor bukatu zen giltza edonori emateko kontu hori.

Ez telebistarik ez telefonorik ez zuten izan etxean urte askoan. Telebista berandu arte ez zuten erosi. Futbol partidak ikusteko-eta ondo legokeela iritzita, Pellori urtebetetzerako erregalatu zioten. Opari komuna inondik ere. Piztuta ez zegoenean, izara batekin estalita izaten zuten, *cuero represivo* bat zelako. Bestela, lege handirik ez zuten etxean. Nork bere garbiketa egiten zuen. Edo, hobeto esan, Juanjok eta Pellok euren garbitzen zuten, eta Joxemik ezer ere ez. «Hain zuen zikina logela, zikin-keriak gainezka egiten zion; kanpora ateratzen zen, eta gure geletara sartu. Hori ikusita, gure gela garbitzen genuenean, zaborra ontzira bota beharrean, haren gelan pilatzen hasi ginen». Pello beste muturrekoa zen garbiketa kontuetan. Baita janzterakoan ere. «Berdin zitzaion zer jantzi. Guk beti arropa berria erregalatzen genion. Baina jantzi eta minutura izango zuen kafesnearen arrastoa. Alkandora berria ez zuen aldatuko ez dakit zenbat denboran. Eta gero hura ez zegoen garbitzerik. Zaborretara bota eta berria erosi». Galtzak beti arrastaka, eta barrenak beti urratuta. Hippysmoaren garaiko semea izateak ematen zion zuribidea. Gainera, garbitasunaren gainean ere teorizatzen zuen, kapitalismoaren kontzeptu bat zela eta...

Haur beraren hiru aita

Komeriak komeria, elkarrekin bizi izan ziren 1988ra arte. Nor bere lanean eta bere kontuekin ibiltzen zen astean zehar, baina ostiralero hirurak afaritara joaten ziren. Hitzordu hori sakratua zen, eta horrela izan zen Joxemi hil zen arte. Familia bat osatzen zuten hirurek. Umeak bakarrik falta zitzaizkien. Eta ez zen alboratzen zuten ideia bat. Areago, hirurak ume beraren aita izateko asmoaz sarritan eta oso serio hitz egin zuten. «Orain txantxa dirudi, baina guk serio planteatzen genuen. Ez genuen sinesten familia tradizionalen, eta alternatiba hori egokia iruditzen zitzaigun. Guk planteatzen genuen hirurok haztea, eta pentsatzen genuen oso ume berezia aterako litzatekeela». Arazoa hiruren gustuko emakumea topatzea izan zela gogoan du Juanjok. Egia esan, hirurek gustuko zuten emakume bat bazen, baina, hiruretako baten neska-laguna izaki, ez zen posible izan. Beste bat da buruan zuten emakumeak zer pentsatuko zuen jakitea.

Emakumeek nahiko buruhauste sortzen zizkioten hirukoteari. Pello berak ligatu eta neskak beste biek eramaten zituztela kexatzen zen. Azkenik, Joxemik numeroak egin behar izan zituen bakoitzaren neskazaletasunaren gainean: «Nik sei neska-lagun serio izan ditut; Juanjok, 60; eta Pellok, 600. Pellok neska bakoitzarekin sei aste irauten du; Juanjok, sei hilabete; eta nik, sei urte». Emakumeekin Joxemi gainerako gauza guztiekin bezalakoa zela gogoratzen du Juanjok. Apasionatua. Eta desordenatua. «Gai zen hiru egun neskarekin, gau eta egun, banandu gabe egoteko halako beroaldi batean». Pellok, berriz, neska-lagunen batek besarkatzen zueneko irudia du: «Ume mainatsu bat bezalakoa zen emakume baten besoetan; laztanak hartzea maite zuen».

Futbola gustuko zuen Joxemik. Realzalea zen, eta aitaren txartelarekin tarteka hartzen zuen denbora Atotxara joateko. Jokatzeari gustatzen zitzaion. Umeetan, asko ibili zen; gero, gaztetan, noiz edo noiz ematen zizkion baloiari ostiko batzuk. Jon Barandiaranek gogoan du nola poteoan ibili eta iluntze aldera norbaitek baloi xaharren bat atera eta han hasten ziren ostikoka. Askotan Konstituzio plazan, leihoren batetik kargu hartzen zieten arte. Txikitan trebea zen oso kiroletan; gero zabartu zen, gizendu ere asko gizendu zelako. Garai batean, bizikletan asko ibili zen. Ordizian bizi zela, Donostiara bizikletaz joaten zen. Sasoi



Danborrada berezia

San Sebastian bezpera. Pello Iturain, Juanjo Landa eta Joxemi Uliako auzokideekin afaritarako bildu dira. Afaldu ondoren Alde Zaharrera jaitsi dira, biharamunean auzoko umeek danborradan erabili beharreko goilara, sardeska eta labana erraldoiak hartuta. Parean egokitzen zaien danborrada bakoitzaren aurrean jarri eta zuzendari lanak egiten ibili dira. Itzuli dira etxera, ordu txikitan itzuli ere, eta goilara pitzatuta, sardeska puskatuta eta labana zikinduta. Umeek danborrada hasterako doi-doi lortuko dute tresnak itxuratzea.

polita hartu zuen, baina norbaitek askorik sinetsi ez, eta erronka bota zion, ezetz Etxegarateko portua igo ordubete geroago aterako zen autoa baino lehen. Berak baietz. Gogor heldu zien entrenamenduei. Hain gogor, ezen behin lurrera begira abiada bizian zihoala kamioi baten ipurdia jo eta sudurra txikitu zuen Ibaeta inguruan. Ez zen apusturik izan, baina Joxemik irabaziko zuela argi dago. Bereziki, jada hitz egina zuelako kamioizale batekin, autoaren aurrean jarri eta motel-motel portua igoarazteko.

Istripuaren ondoren, bazterrean utzi zuen bizikleta. Handik hamar urtera, berriro sartu zitzaion bizikletan ibiltzeko harra. Gizona zegoen oso, 90 kilo pasatxo. Bizikleta erosi, eta Iñaki Uriarekin batera entrenamenduak hasi zituen Donostia, Goizueta, Leitza, Tolosa eta Hernani arteko bidea egin ahal izateko. Helburua lortu zuenean gustura geratu zen eta ez zuen bizikleta gehiago hartu. Zerbait buruan sartzen bazitzaion, egin egingo zuen, badakizue dagoeneko.

Kotxean, eta beti berandu

Gauza materialak ez ziren sekula arazo. Ez zuten indarrik ez buruko minik merezi. Arropa zarpaildua? Berria erosi. Ohea egin gabe? Lo berdin egi-ten da. Autoak kolpea hartu duela? Berdin gidatzen da. Garrantzirik gabeko kontuak ziren harentzat. Abian jarri behar zen egitasmo bat, hartu beharreko ardura bat, egin beharreko bilera bat, lagunekin bildu beharra... Horiek ziren garrantzizkoena. Haserretu ere, ez zen askotan haserretzen, baina egiten zuenean jenio oso bizia zuen. Dirua lapurtu zeniola eta kotxeari kolpea eman zeniola, hori ez zen haserretzeko moduko arrazoi bat. Sutuko zen lagun bat defendatzeagatik, edota bere egitasmo bati deliberatuki oztopo jarri izanagatik. Gainerakoa erlatiboa zen. Autoak aipatu ditugu, eta ezin utzi esan gabe makina bat haserre izan zuela autoen kontura. Pentsa, klandestinitatean *Jeronimo* deitzen ziotela esan dugu, gidaritzarako zuen trebeziagatik, baina baita *Bujias* ere. Nonbait, sarritxo jarri zuen bujien aitzakia berandu iristeko. Eta, agian, egia izango zen, zeren autoak ez zituen batere zaintzen. Gasolina gabe geratu, askotan. Giltza barruan ahaztu, makina bat aldiz. Non apar-katu zuen ezin gogoratu, sarri. Bidea ikusiko bazen, kopilotuak aurreko kristala garbitu behar, usu. Autoa liburuz eta paperez betea, beti. Eta Maddi eta Jon jaio zirenean, jostailuz josita. Baina hori ez zen larria harentzat. Autoak auto dira; traste batzuk, besterik ez. Baina autoagatik izan zein ez, Joxemi ia beti berandu iristen zen hitzordu gehienetara.

Esan dugu Egia inprimategian zebilela lanean. Han *Zeruko Argia* aldizkaria fotokonposatzen hasi ziren, eta Joxemari Ostolazarekin berri-ro egin zuen topo, zazpi urte lehenago kantaldi legez kanpokoen kontu-ra elkarrekin ibili eta gero. Joxemari *Zeruko Argia*-n zebilen lanean; hark

egin zion Joxemiri aldizkarira lanera joateko eskaintza. Ez zuen zalantzarik batere izan: baiezkoa. Eskaintza gutxi gorabehera horrelakoa zen: soldatarik ez, diru zorrak handiak, lanorduak behar ziren guztiak eta gehiago; aldizkaria langileek bere gain hartu beharra, eta euskarazko prentsaren aldeko borrokan buru-belarri sartzea. 1979. urtea zen. Joxemi-Joxemari binomioak ondo baino hobeto funtzionatuko du. Eta urte luze-etan elkarren ondoan egongo dira. Batek baino gehiagok ez zuen harreman horren alde askorik emango. Izan ere, Joxemari ETA Vean izana zen, eta Joxemi Vlan. «Oso urte aluak izan ziren harremanen aldetik. Ezinikusi eta zauri handiak ziren bi taldeen artean. Joxemik eta biok jakin genuen pertika bat hartu, horren gainetik salto egin eta harremana gordetzen». Egia esan, Joxemik erraztasun berezia zuen laguntasun giroa sortzen eta harremanak denboran luzez gordetzen.

Etxean bezala sentitu zen hasiera- hasieratik Joxemi *Argia*-n, eta bertan laketu zen, bizitzen geratu kasik. «Hau da nire lekua, hau da nire borroka», sentitu izan balu bezala. Hor hasiko da *Zerurik* gabeko *Argia*-ren ibilbidea, eta talde horretan Joxemik bere onena emango du, eta taldeak bere onena erantsiko dio.



Sukaldaritza berriaren ziz eronea

Gipuzkoako hamalau sukaldarik euskal gastronomia eraberritu eta Euskal Sukaldaritza Berria sortzeko abenturan Joxemik izan zuen zerikusirik. Sukaldari gazte talde hark errezeta zaharrak berreskuratu eta berritzeaz gainera, euskal sukaldaritza euskal kulturaren barnean kokatzeko saio bat ere egin behar zela pentsatu zuten. Joan Mari Arzakek ondo gogoratzen du Joxemirekin elkartu eta asko hitz egiten zutela 70eko hamarkadako euskal kultura berriatzatzailearen mugimendu hartan sukaldaritza nola txertatu. «Askok lagundu gintuen sukaldaritza oinarri kulturalak ezartzen, zentzua ematen, oinarri teorikoak jartzen guk intuizien genuen mundu horri guztiari». «Eta horri zor zaio gure egitasmoa aurrera atera izana, zeren, beste leku

askotan saiatu arren, huts egin zuen». Hala iritzi dio Arzakek. «Lanerako grina eta indarra ematen zigun Joxemik». Estimua handia zion Joxemiri. Arzakek ez du ahaztekoa txima luze eta hippy itxura haren azpian «gizon apal bat zegoela, baina, aldi berean, oso apasionatua».

Euskal Sukaldaritza berriaren oinarri teoriko eta praktikoak behin zehaztutakoan, zabaltzeko unea iritsi zen. 1977ko udaberritik 1978ko abendura arte, hilero sukaldari batek afari bat prestatu zuen bere jatetxean berrogei bat lagunentzat. Afari horietara bakoitzak lau bat lagun gonbidatzen zituen. Asmoa sukaldaritza berria ezagutaraztea zen. Joxemi horietako askotara gonbidatu zuten, eta han zizerone lanak egiten zituen. Afaldu eta gero, beti izaten zen mahai-inguru antzeko bat, eta horietan moderatzaile Joxemi zen.

Joxemik Arzakekin zuen laguntasuna zela eta, *Argia*-ko taldea tarteka joaten zen Arzakera bazkaltzera. Gehienetan gonbidatuta. Baina behin batean itzulpen batzuen kontura espero gabe kobratu zuten diru mordoxka bat poltsikoan hartuta joan ziren. Baina Arzakek Joxemiri kobratu nahi ez. Eta Joxemik kobratzeko. Iskanbila ederra sortu omen zuten jangelan. Bere etxean zegoela eta ez ziola ordaintzen utziko, esaten zion sukaldariak. Joxemik, kobratzen ez bazion ez zela gehiago joango. Bada, egiteko nahi zuena baina ez ziola inondik inora kobratuko.

Joxemik, kultura gastronomikoa baina gehiago, sentsibiltate gastronomikoa zuela uste du Arzakek. «Zaporeak oso ondo bereizten zituen, eta jakien kontura egiten zituen komentarioak batzuetan harriarriak ziren, profesional ez zen baten ahotan zirelako». Sentsibiltate gastronomikoari «ondo jandako morroia» izatea deitzen dio Karlos Argiñanok. Argiñanok asko ezagutu zuen Joxemi; lagunak izan ziren, Juanjo Landa tarteko zela. «Ni berehala konturatu nintzen angelak eta kokotxak gu baino sarriago eta gehiago jandakoa zela Joxemi». Irudipen hori izan zuen Argiñanok Joxemirekin lehen aldiz mahaian eseri zenean: «Honek ondo jan dik beti».

Bi sukaldari horiekiko adiskidantzari esker, *Zeruko Argia*-ren aldeko bazkari bat antolatu zen Anoetako frontoian 1979an, eta sukaldari berri horiek guztiek mila lagunentzat prestatu zuten bazkaria. *Argia*-ko kideak zerbitzari lanetan ibili ziren.

Sukaldean ez zen gaizki moldatzen Joxemi. Bereziki, 1980ko neguan Argiñanoren esanetara ikastaro bat egin zuenetik. Joxemiz gainera, Juanjo Landa eta Pello Iturain etxekideak ere bazeuden ikastaroan. Baita Lopez Ufarte eta Salba Iriarte ere, orduan Realeko jokalaria. Hernaniko Langile ikastolan biltzen ziren astero. Normalean, errezeta erraz samarrak ziren, baina hilean behin zerbait berezia prestatu eta bertan afaria egiten zuten. Gero norbaitek aterako zuen gitarraren bat, eta kantuan eta parranda giroan jarduten zuten. Ahoz aho zabaldu zen ikastaroaren kontua, eta hasieran bost lagun izatetik hamabost izatera pasatu ziren, normalean gertatzen denaren kontrakoa. Ikastaroko errezeta horiek gerora *Argia*-n hasi zen argitaratzen Joxemi, bere marrazkiekin apaindurik (Argiñano ageri den haserako marrazkia da horietako bat). Eta, hain zuzen, horixe izan zen Argiñanok komunikabideekin izan zuen lehen kolaborazioa.

Ikastaroan ikasia praktikan noiz edo noiz jarri zuen Joxemik. «Arraia intxaur saltsan» zioen errezeta aukeratu zuen. Juanjo eta Pellorekin, hiruren artean prestatzekoak ziren Uliako auzokideentzako afaria. Juanjok «epopeia bat» izan zela dio bazkariaren prestaketa, eta Pellok, berriz, izugarrizko iskanbila izan zutela euren artean, eta azkenean sukaldean banaka sartzea erabaki zutela. Batek bukatu arte, besteak mutu.

Ez zen sukaldari txarra; denborarik ez zuela hartzen kontua. Baina hobe zen jalea, eta are hobeagoa bazkalondoko solaskide moduan. «Gustua ematen zuen bazkaldu ondoren berarekin tertulian egotea. Goxo, lasai eta oso garbi hitz egiten zuen». Argiñanoren oroitzapenak dira.

1979-1987



Krisi latza zuen gainean *Zeruko Argiak*, Joxemi bertara joan zenean. Zor handiak zituen inprimategiarekin; dirurik ez langileei ordaintzeko, eta kaputxinoek utzi egin nahi zuten, norbait hartzeko prest bazegoen, behintzat. Bestela, harenak egingo zuen. 1980ko udaberrian, Joxe Mari Ostolaza, Elixabete Garmendia, Lurdes Auzmendi, Rotu Astrain, Karlos Valverde, Pilar Iparragirre eta Joxemi aldizkaria euren gain hartzeko prest agertu ziren. Baina aldizkariaren etorkizun gero eta ilunagoak eta egoeraren larriak eraginda, udako oporretatik bueltan Joxemari eta Joxemi bakarrik geratu ziren, ez zeru eta ez lur. *Zerua* kendu eta *Argia* izango da handik aurrera aldizkariaren izena.

Aldizkari beraren egoeraren latza gutxi balitz bezala, garai hartan ingurunean babesik ez zuen argitalpen bat zen. Bakarrik zegoen *Argia*. Orduko apustu guztiak prentsa elebidunaren aldekoak ziren. 1977an, *Deia* eta *Egin* egunkariak sortu ziren, eta horien arrastora etorriko ziren geroago *Punto y Hora*, *Berriak*, *Ere*, *Garaia* eta beste. Guztiak teoriarik elebidunak, baina praktikan diglosikoak. Giro horretan, *Zeruko Argia*-k kazetariak galdu zituen, baita kolaboratzaileak ere, eta, nola ez, publizitatea. Beti zen erakargarriago gaztelaniaz idatzitako argitalpen bat euskarazkoa baino, zabalkunde handiagoa zuelako.

Trantsizioko egoera politiko nahasiaren ondorioz, abertzaletasunaren batasunik jada ez zegoen, inoiz egon bazen bederen. Mapa politikoan leku garbirik ez zuen *Argia*-k, beraz, eta alde guztietatik zituen mesfidantza begiradak. «Independente izatea oinarritzko irizpide bat zen guretzat, eta hori ez da gustuko inongo talde politikorentzat», dio Joxemari Ostolazak. Euskara hutsezko prentsa defendatzea marjinalita-

tera kondenatzea zen. «Euskara hutsezko eremu baten alde agertzea problema handia zen alde askotatik. Auzitan jartzen zuen elebitasunaren apustua. Baina denborak arrazoia eman digu», dio Pello Zubiriak. «Giro politikoa eta soziala euskarazko prentsa harrika botatzearen aldekoa zen nagusiki», gogoratzen du Josu Landak.

Argia-rako bizi baina ez Argia-tik

Joxemarik eta Joxemik ez zuten zeregin txikia hartu euren bizkar. Dena emanda ere ez ziren igual ailegatuko. Ordainsaria, aldizkaria bera aurrera ateratzea. Ez besterik. Hortxe hasiko da Joxemiren «matxakaldia». *Argia*-n lanean hastea oso erabaki garrantzitsua izan zen Joxemirentzat. Batetik, atzeman zuelako hori zela bere leku naturala: barrenak eskatzen zion hori. Eta, bestetik, soldata finko bat utzi eta militantzia erabateko-



1982

Argieroak: Josu Landa, Iñaki Uria, Joseba Alvarez, Jon Barandiaran, Pello Zubiria eta Joxemi, ondoan Ostaizka Irastorza lagun mina duela.

an sartu beharko zuelako. Hogeita hamar urte gertu ditu, eta bizitzeko gurasoenean eskatu beharrak ez du eroso sentiarazten. Gurasoak beti eman izan zioten laguntza, aitzakiarik gabe. Ados egon zein ez, beti izan zuen gurasoen laguntza, eta areago sostengua. Aitak Joxemiren aukera ondo ulertu zuen; azken finean, modu *aldrebesagoan* edo iraultzaileagoan izanda ere, semearen euskararekiko eta euskal kulturarekiko borroka berea ere bazelako. Borroka hori aitaren borroka bera zen. «Nik aitari esaten diot: entenditzen dizut oso ondo, pasa dituzun urte guztiak eta hainbeste eraso ikusita, eta, itxaropenak itxaropen, behintzat lor daitekeena lortzera jotzeko jarrera. Baina frankismoaren azken garaia bakarrik bizi izan dugunok gehiago azpimarratzen ditugu euskarak beharko lituzkeen erabaki fundamentalak hartu ahal izatea, eta gaur egun ez daude erabaki horiek hartuta». Aita-semeek, ikuspuntu desberdinak izanagatik, komunikazioa berezia zuten elkarren artean.

Argia-ko proiektuan, gurasoek lagundu eta sostengatu egin zuten Joxemi. Gogoan du Joxemarik kaputxinoei aldizkaria hartu eta gutxira kreditu bat eskatzera nola joan ziren bera, Joxemi eta Joxemiren aita orduko Aurrezki Kutxa Probintzialera. Aita eurekin ikusita bankukoek dirua errazago emango zietela pentsatu zuten bi gazteek. Eseri dira bulegoan, egin ditu numeroak bankukoak, eta Joxemiren aitari zera esaten dio: «Zuk abalatzen baduzu, guk emango diegu dirua». Eta aitak erantzun: «Nik ere emango diet, zuek abalatzen baduzue». Umore zorrotzeko gizona zen. Ez ditu ahazteko Joxemarik aita-semeen pasadizoak. «Gure etxean arazo nagusia, Joxemiren galtzak», esaten zion aitak serio-serio Joxemariri.

Joxemiren galtza urratuek zeresan ugari ematen zuten. Ostolazak berak ere sarritan jotzen zion adarra zabartasunaren kontura. Joxemi eta Joxemari osagarri ziren, bai itxuraz eta bai izaeraz oso desberdinak izanagatik. Joxemi janzkeran zabarra zen, eta Joxemari txukuna; Joxemi desordenatua, Joxemari ordenazalea; Joxemi patxada handikoa, Joxemari nerbio bizikoa; Joxemi buruari buelta asko ematekoa, Joxemari gauzak ti-ta batean egin zalea. Urte askoan egunero-egunero elkarrekin bazkaldu zuten. Ingurura beti hurbiltzen zuten hau edo hura, egitasmo batez edo besteaz hitz egiteko. Hori Joxemiren lan modua zen: erabakiak hartzeko bilerak, baina proiektuak asmatu, amestu eta *konspiratzeko* beti

Leonarda birramona

L. Bastida izenarekin sinatzen zituen Joxemik bere artikuluak, *Zeruko Argia*-n lehenengo eta *Argia*-n geroago. *L. Bastida* Leonarda Bastida zen, Joxemiren aitonaren ama, Zumalabetarren aldetik. Joxemiren birramona, beraz. Umea zela, baserriak su hartu eta ito beharrean zegoela norbaitek hartu eta leihotik bota omen zuen, eta horri esker salbatu. «Leonarda Bastida sute hartatik bizirik irten zelako nago ni hemen», esaten zuen Joxemik, eta horregatik aukeratu zuen haren izena sinatzeko. Emakumea eta kemen handi samarrekoa izateak ere izan zuen zerikusia izenordearen hautaketan.

mahaiaren bueltan eserita, bazkaltzen edo afaltzen. «Konplizitate handia genuen elkarrekin, eta horrek indar handia ematen zigun», gogoan du Joxemarik. Baina nondik zetorren halako egoera larrian zegoen *Argia* bezalako negozioa aurrera ateratzeko hainbesteko seta?

«Euskara hutsezko prentsa beharrezkoa zela uste osoa genuen», dio Joxemarik. Baina ez hori bakarrik. *Argia* kazetari mintegi gisa planteatzen zuen Joxemik, zeren profesionalak sortzeko beste biderik ez zuen ikusten inon. Eta are urrunago zuen gogoia. Aldarrikapen mailan, bederen, euskarazko egunkari baten beharra eta asmoa buruan zuen.

Argieroen zurrunbiloan

Guztia aurrera ateratzeko aurreneko lana taldea osatzea izan zuten. Josu Landa izan zen taldera sartzen lehena, orduan hogeitaz urteko Euskal Filologiako ikasle. 1980ko udazkenearako, buru-belarri zebilen kazetari lanean *Argia*-n, eta ordurako Joxemirekin gaupasak gaupasen atzetik egitea asteroko lege bihurtua zuten. 1981 bukaeran, Pello Zubiria etorri zen, soldaduska amaitu berri. Hilabete batzuk lehentxeago, Jon Barandiaran ekarri



1984

Argia'-rako bizi ziren, ez 'Argia'-tik. Dirua beste lanbide batzuetatik atera, eta ordu Aguztiak aldizkaria aurrera ateratzen emango zituzten.

zuen Joxemik, eta apur bat geroago, ordurako kolaboratzaile zen Iñaki Uri, Landaren ikaskidea. 1982rako, *Argia*-ren bihotza izango zen taldea osatua zegoen: Argieroak. Inguruan zituzten Joseba Alvarez, Pablo Sastre eta Mikel Antza. Eta, gero, kolaboratzaile andana bat.

Lehen hiru urteak oso biziak eta gogorrak izan ziren. Proiektuarentzat bizi ziren, baina inor ez proiektutik. Bestelako lanak egiten zituzten, bizitzeko adina atera eta *Argia*-n musu truk lan egiteko. Joxemik eta Jonek igandeetan *Hoja de Lunes* egunkaria muntatzen ateratzen zuen dirua; Iñakik, Pellok eta Josuk, euskarazko eskolak ematen eta itzulpenak egiten. Beste diru sarrera bat ere topatu zuen Joxemik, taldea osatu eta berehalaxe. Ezagun batek Amapa izeneko enpresa jarri zuen abian. Iparraldeko herri sarreretan zeuden panel informatiboak Hegoalderako egitea zuen helburua. Horretan hasi ziren lanean Joxemi bera, Jon eta Iñaki. Azken biak mapak egiten; Joxemi bazkide modura hartu nahi izan zuen nagusiak. Joxemik argi esan zion: «Nire negozioa

Argia da, baina dirua ematen badu, eutsiko diot». Urtebete ez zuen iraun enpresak. Joxemik ez zuen xentimorik kobratu, baina *Argia*-ko bik soldata eta ondoren langabezia jaso zuten. Eta, beraz, *Argia*-n buru-belarri lanean jarraitzeko modua lortu zuten. Eta hori nahikoa zen Joxemirentzat. «Egiten zituen apustuak bera pertsonalki galtzaile irtetekoak ziren, baina bere proiektuarekiko onuragarriak», dio Jonek. Xentimorik ikusi ez bazuen ere, negozio ona izan zen bere begietan.

Joxemik gazteagoekin lotura ona izan zuen, eta talde sendoa osatu zuten. «Elkarren babesean ibili beharrak, bai pertsona gisa eta bai talde gisa, asko indartu gintuen». Joxemarekin bat dator Iñaki. «Gu ginen gu munduaren kontra». Giroa erabat «numantinoa» zela deritzo Josuk. «Elkarrekin egoteak, gaupasak egiteak, dirua partekatzeak, 'nirea den guztia zurea da eta alderantziz' pentsatzeak, azkenean, oso giro afektibo eta humano aberatsa sortu zuen». «Guk esan dezakegu ezker-tiarrak ginela, bai pentsaeran eta bai bizimoduan, eta oso baliabide urriekin gauza garrantzitsu dezente egin genituela», dio, irmo, Joxemarik. «Oso talde sendo eta estua zegoen hor. Gurea ez zen 'gustuko dudana eginez bizi', orduan askok esaten zuten moduan, baizik eta 'egin behar dena egin eta ahal den moduan bizi'». Alegia, profesionala izateak ez duela berez zerikusirik soldata bat jasotzearekin. «Pentsamendu iraultzaile ezkertiar batekin lotuta zegoen gure biziera». Hala gogoratzen du Iñakik: «Eta sakrifizioa eginagatik, ondo pasatzen genuen. Eta horrek asko betetzen du horrelako proiektu batean jarduteko. Ideologiarekin bakarrik bazoaz, motz gera zaitezke. Bizimodua gure modura ulertzen genuen: militantzia bai, baina gozatuz. Egin behar dugu egin behar dena, baina ez sufrituz, gozatuz baizik». Bizi-planteamendu hori Joxemirengandik ikasi zuten. «Gozatu egiten zuen bere lanean, eta, gainera, gozamen hori zabaltzen asmatzen zuen. Kutsatu egiten zuen entusiasmoa», Josuren begietan.

Taldea zen garrantzitsuena, eta horren adierazgarri da *Argia*-ren lehen garai hartan ezizenez sinaturiko artikulua asko direla. Ez zen lan pertsonalaren luzimendurako lekua, taldean lan egitekoa baizik. Taldeko kideak «oso modularrak» zirela deritzo Pellok. Gauza bat baino gehiago egiteko gai eta elkarri modu diferenteetan egokitzeak oso aproposak. «Taldea baten funtzionamenduan, oso izaera interesgarria zuen Joxemik.

Bete-betean genbiltzan, kaka pila guztietan sartuta, eta giro horretan beharrezkoa zen norbait lasaia, hitz egiteko gaitasuna zuena. Oso izaera berezia zuen, buruargia zen, eta, zetorren tokitik etorruta, ezagutza eta izaera berezia zuen. Guk ez genuen mundu bat hurbilarazi zuen taldera».

Kariñoaren indarra

Joxemik trebezia berezia zuen taldean aritzeko eta taldean eragiteko. «Joxemik izugarritzko gaitasuna zuen kariñoa helarazteko, kariño giroa sortzeko gertuko harremanetan, salbu eta gai serioren bat tarteko bazen. Oso eskuzabala zen gauza guztiekin». Gauza materialekin batera, bere denborarekin eta bere sentimenduekin. Josuk horrela bizi izan zuen. «Joxemi beti hor zegoen. Lankide eta lagun. Joxemik bazekien bakoitzarekin sakon hitz egiten, oso harreman estuak egiten. Taldeak horrekin



1981 Josu Landa eta Joxemi lankide eta adiskide min ziren. 'Ipurtargi beltza' izeneko liburua kaleratu zuten elkarrekin, poema, ipuin eta marrazkiak bilduz.



1981 *Zakurzale amorratua zen. Kaletik hartu eta etxera eramandakorik izan zuen, 'Hondar' izenekoa esaterako. Maite, asko maite zituen; zaindu, ez hainbeste.*

pisu handia hartu zuen, eta Joxemik taldearen barruan pisu handia zuen». Joxemi zen zaharrena, gainera, eta berak zuen taldearen buruzagitza. Bera zen etxearen zutabe nagusia. «Jendearekin harremanetan sartzeko, hitz egin eta konbentzitzeko gaitasun handia zuen. Jendearekin oso arduratsua zen: jendea zaindu, animatu, gogoa piztu... Bazuen sentiberatasun berezi bat». Jonen hitzak dira.

1981. urtea urte gogorra izan zen. Joseba Arregi torturatu eta hil zuen Guardia Zibilak, Ryan bahitu eta hil zuen ETAk, eta otsailean estatu kolpea jotzeko saioa gertatu zen. Kolpearen berri Abenidako Rosiren kioskoan beti piztuta zegoen irrati txikian entzun zuten Joxemik eta Josuk. Joxemik hori entzun, eta lehenengo gauza Okendo kaleko kaputxinoen lokalera joan eta harpidedunen koaderno hartzea izan zuen. Leku seguru batera eraman behar zuela esan zion Josuri. Agurtu, eta bakoitza etxe batera joan zen. Gaur gogoratuta, barregarri ikusten du pasadizo hura Josuk, baina garaiaren latzak ez zuen lasai bizitzen uzten. *Argia*-ren hogeita lau ale baino ez ziren kaleratu urte hartan.

Egia auzoko Karmengo Amaren lokal berrira urte bukaeran egin zuten. Begiratu irudiari: lokala baxu bat da, iluna. Leihorik ez du, egunkariak hormaren kontra pilatuta. Mahaiak paperez josita. Goizean bazoaz, ez da harritzekoa izango Joxemi, Josu eta Iñaki ordenagailuen gainean lo topatzea, gaupasa egin eta gero. Arratsaldean denak izango dirahan, eta ez dute aldizkaria bukatu arteko onik izango. Aldameneko Kata tabernan dute bestelako azpiegitura guztia: jatena, edatekoa, kafeak eta tabakoa. Haize piska bat hartzeko lekua. Joxemik jertse gris handia darma soinean; ilea luze, bizarra. Muntatze mahaian lanean ibilita, jertsearen mahuketatik artikulu zutabeen zatiak eta paperak ditu zintzilik. Kafesneek eusten diote esna. Zigarroaren kearekin kontzentratzen da. Lau pintxorekin berdintzen du gosea.

«*Argia* familia bat zen». Hala gogoratzen du Ostaizka Irastortza neska-lagunak. «Berarekiko bikote harremana oso lotuta zegoen lanarekin eta lagun giro horrekin». *Egin*-en ezagutu zuten elkar, 1982an, Ostaizka ere muntatze sailean ibiltzen zelako. Joxemik *Argia*-ra ekarri zuen, aldizkaria muntatzen laguntzera. Joxemik jakin zuen lana, adiskideak eta neska-lagunak *Argia*-ren inguruan biltzen; gainerakoei, berriz, neska-lagun bat baino gehiago galarazi zien *Argia*-ri hainbeste ordu eskaini beharrak.

Zumalabetarra izaki

Lokal berria hartzeko, ezinbesteko izan zen Karlos Santamaria, garai hartan Eusko Kontseilu Nagusiko Hezkuntza kontseilari lanetan ari zena. Bilera eskatu eta hurrengo astean errezibitu zituen Joxemari eta Joxemi. Santamariak txiki-txikitatik ezagutzen zuen Joxemi. Kasik osaba-ilobak ziren. Gainera, irakasle ere izan zuen batxilergoan. Beraz, ateak parez pare zabaldu zizkien *Argia*-ko bi gazteei. Haientzat arnasa lasai hartzea izan zen; esan dugu zeinen kontrakoa zuen giroa euskarazko prentsak, eta zeinen bakarturik zegoen *Argia* taldea mapa politikoan. Joxemarik bilera hori «erabakigarria eta oso esperantzagarria» izan zela dio.


Erakundeekiko harreman horietan, oso lagungarriak izan ziren Joxemiren jatorria, bere ibilbidean egindako adiskidantzak eta ezagutzak, eta bere izaera patxadatsu eta irekia. Joxemarik gogoan du beste

bilera bat ere, hura ere «erabakigarria», eta han ere Joxemi izan zen gakoa. Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Euskara Arazoetarako zuzendari Martin Ugalde izendatu berriarengana jo zuten ordukoan. Sartu dira Lakuako bulegora, eta Joxemariaren ustekabea Ugalderi «hau Joxemi Zumalabe da» esaten dionean. Ezin kabituz Ugalde: «Zure aita irakasle izan nuen», «osaba Agustin lagun handia dut». Handik aurrera harreman handia izan zuten. Bilera asko egin zituzten. Beti ostegunetan: lehenengo bazkaldu, gero bilera egin, eta ondoren Ugaldek Gasteizen zuen apartamentutik pasatu, maleta hartu, eta Hondarribira eramaten zuten. Hor hasiko da egunkari baten balizkotasuna gauzatzen.

Lokal berrira joan eta taldea abian jartzean, beste animo bat dute. Gazteak idazten eta muntatzen hasiko dira, eta Joxemik horiek utzi eta kudeaketan sartuko da: diru laguntzak negoziatu eta egitasmo berriak abian jarri, Joxemariarekin batera. Esan dugu janzkeran bata bezain zabarra zela bestea txukuna. Lehenengo lana kutxa komunetik dirua hartu eta Joxemirentzat jaka bat erostea izango da. Erantzi du Joxemik jertse zahar higatua, eta jantzi du jaka gris jaspeztatu berria. Ondo ematen dio. San Martin kalean bazkaldu, eta arratsaldean Diputaziora joango dira, bilera egitera. Eseri dira bazkaltzeko. Bigarren platera zerbitzatzerako, erre usaina: txaketa berria butanoko berogailuaren ondoan dago, kea dariola.

Argia sostengatzeko, Apika eta Antza

Jendea inguratu, *Argia* sendotu, azpiegiturak sortu eta euskal prentsan urratsak aurrera egiteko garaia izan zen 80ko hamarkada. Behin taldea osatutakoan, lan prozesua arindu eta merkatuko zuen sistema bat abian jartzea izango da helburua, eta, horrekin batera, aldizkaria berarentzat eta taldekideentzat diru iturri izango den azpiegiturak sortzea. Lehenengo helburua Simeon Barroso *Sime* eta Juanjo de Marcos *Poco* teknikarien eskutik iritsiko da. Joxemik *Egin*-en ezagutu eta konbentzitu zituen *Argia*-n musu truk sistema informatiko bat jartzeko. Sime eta Poco bi fenomeno ziren harrika botatako makinak konpontzen. Usaimen hutsarekin asmatzen zuten erretako txipak zein ziren. Joxemarik, negozioetarako duen trebezia berretsiz, *El País* egunkariari bi filmagailu zahar



Autodidakta

erosi zizkion. Sime eta Pocok konpondu zituzten; bat *Argia*-n jarri zuten, eta bestea biren prezioan saldu. Negozio biribila. Horren aurretik, Portugalen izugarrizko paper piloa erosi zuen Joxemarik: zati bat *Argia* botatzeko gorde, eta bestea erositako salneurria halako bitan saldu zuen.

Ekimen horiekin, *Argia* nahiko puntan jarriko da azpiegitura teknologikori dagokionez. Bi urteren buruan, furgoneta gidariari mila duroko faktura ezin ordaintzetik fotokonposizio propioa izatera pasatuko dira. Horren ondotik, paisaia berri bat irekiko zaie begien aurrean. Zergatik ez sortu informatika enpresa bat, aldizkariari azpiegitura informatikoa eman eta, gainera, finantzabide bat bermatu ahal izateko? Apika izeneko enpresa sortuko dute 1984an, eta Joxemiren aitag Getaria kalean zuen lokalean

Joxemi berez zen curiositate handia zuen gizona, gai asko zitzaizkion interesgarri, baina curiositateak baino egoerak eraginda ikasi eta bete behar izan zituen lanbide asko. Askotan bere berezko joerarekin zerikusi handirik ez zuten lanak ziren. Apika informatika enpresa sortu eta gerente lanetan jarri zenean bezala. Enpresa bat nola zuzendu bere kasara ikasi zuen. Lisboaara egindako opor batzuetan kontabilitate liburu bat erosi eta hura irakurriz ikasi zuen numeroekin nola borrokatu. Gero, jardunak erakutsi zion zein bidetik jo, baina helburuak garbi izateak asko lagundu zion.

jarriko dute egoitza. Elkartea Joxemik, Joxemarik, Simek, Pocok eta Xabier Errok osatu zuten.

Apika sortu zuten bezala, 1988an Antza inprimategia eratu zuten, Zumalabetarren ezagun ziren Tamayotarrei inprimategia erosita. Hor ere Joxemiren harremanak zabaldu zuen bidea. Guztia, *Argia* aurrera ateratzeko. Beste enpresa batzuk aldizkariaren finantzabide eta azpiegitura iturri gisa jartzea Joxemik hasieratik buruan izan zuen gauza da. «Proiektu horien atzean beti zeuden Joxemiren lauzpabost insomnio gau. Horiek beti ziren Joxemiren burutazioak. Berak zuen horretarako gaitasun handiena», azaldu du Josu.

«Gu ez ginen *txostenlandian* bizi. Jarri gauzak martxan; finantzabidea bilatuko diagu». Horixe zen Joxemariren eta Joxemiren filosofia. «Beldurra galtzeko sistema ona da hori. Erabakiak hartzen genituen zetozen moduan, baina ondo pentsatuta. Eta uste dut ez ginela askotan okertu; garrantzitsuenean ez genuen hanka sartu. Egia esan, gure buruarekin izugarrizko sinesmena genuen». Zer erremedio, nola bestela? Ideiak argi izate horrek eta borondate *itsu* horrek emaitza harrigarriak eman zituen oso urte gutxian: hamar urtean, aldizkaria sendotu, foto-konposizio sistema propioa ezarri; informatika enpresa bat antolatu, inprenta bat eratu, eta egunkari bat bideratuko duen proiektua sortu eta gauzatuko da. *Argia* euskarazko prentsaren bihotza eta motorra izango da 80ko hamarkada osoan. Arrakastak giltza asko ditu, baina bat nabarmendu beharko bagenu, hori taldea izango da. Bi eta bi lau ez direla frogatzen da, hogeita bi baizik.

«Oso gaizki ohitu ginen». Josuren ustea da hori. «Kanpotik ikusita, oso suizida izango ginen. Baina sei urtean lortu genuena izugarria zen. Aldizkaria saneatu, azpiegiturak jarri, proiektuak aurrera atera, euskal prentsa posible eta beharrezko zela aldarrikatu. Joxemik bazekien zein indar zuen taldean, eta atrebitzen da bestela atrebitu ez litzatekeen gauzak planteatzen. Hor badago autoelikatzen den espiral bat. Erronkei heldu egiten genien, baina ez modu egituratuan, modu bitalean baizik». Joxemik ez zuen sekula *ni* hitza erabiltzen: beti zen *gu*. «Egin behar dugu» eta «egingo dugu». Bazekien amets egiten, baina baita indarrak neurtzen ere, eta gutxitan emango zuen urrats ustelik. Ipurtargi beltza-
ren irudia asmatu zuten Joxemik eta Josuk elkarrekin kaleratu zuten

libururako. Joxemi ipurtargi batekin pareka daiteke, baina ez beltza. Eta alegia berri baten hasera osatzen hasi: bazen behin eguzki batek baino argi txikiagoa eginagatik, itzal luzeagoa ematen zuen ipurtargi bat...

Temati amorratua zen Joxemi, esan dugu. «Ez zuen inoiz etsiko lortu arte», Jonen ustetan. «Bilera batean bere proposamenen bat ez bazen aurrera ateratzen, ez zuen amore emango. Handik bi egunera berriro jarriko zuen mahai gainean, edo hilabetera, edo urte erdira». «Eta, ziurrenik, izaera hori oso beharrezko izan zuen hainbat egitasmo aurrera ateratzeko eta, bestetik, toreatu behar izan zituen zezenak toreatzeko». Hala ikusten du Joxemarik. «Hori izan da adostasunak biltzeko oinarria eta zenbait ekimen aurrera ateratzeko giltza».

Apustua egin eta irabazi. Hurrengoa bota behar. Eta hurrengoa euskarazko egunkaria izan zen. «Alde batetik, ametsa zen, baina, bestetik, arriskatu beharrean ginen. Bazen garai bat esaten genuena: Ez al dugu nahikoa egin? Denok hamar urte gehiago ditugu, lasaiago bizi gaitzke ur handiagotan sartu gabe». Euskarazko egunkaria sortzeko prozesu horretan guztian aurrera Joxemik eraman zituela uste du Iñakik. «Berak tiratu zuen gurditik».



EKB, beste borroka gunea

Euskal Kulturaren Batzarrea, EKB, *Argia*-ren sukaldean sortu zen, 1983an, *Argia*-ko kideek aldizkari bat egitetik haratago ernatzen ari zen euskalgintzaren eremuan zuzenean parte hartzeko zuten bokazioari erantzunez. Joxemik, *Argia*-z gainera, beste borroka zelaizat hartu zuen EKB. Finean, borroka beraren beste alde bat zen. Euskal Herrian Euskaraz, AEK eta *Argia* bera ziren EKBko hiru elkarte nagusiak, eta inguruan *Jakin*, UEU eta euskararen aldeko beste talde ugari zeuden. Helburua euskalgintzako mugimendu herritarra bultzatu eta koordinatzeko erakundea izatea zen. Sortu eta bi urtera, euskararen plangintza orokor baten beharraren inguruko txosten bat osatu zuen, gerora etorri direnen aurrendari. «EKBk eskatzen duen plangintza euskalduntze plangintza batean zehaztu behar da, plan horrek behar dituen bitarteko politiko, ekonomiko eta sozialak hartuz. (...) Euskarak behar lituzkeen erabaki horiek eskatzea, eta zein izan beharko luketen aditzera ematea da EKBren egitekoa. EKBk planteatzen du plangintza orokor baten inguruan lor daitekeen batasunean oinarritu behar dela plangintza hori, eta EKB baldintza hori betetzen duten indar guztien metaketa egiten saiatzen da». Joxemiren beraren azalpenak dira.

Sortu eta bi urtera, ez atzera ez aurrera geratu zen. EKBren berpiztean zerikusirik izan zuen Joxemik. *Argia*-ko ordezkari gisa jarri zen EKBn, eta jarraitu beharreko bidea markatu zuen. EKBko idazkari nagusi ohi Joxe Jabier Iñigoren ustez, erakundearen urte funtsezkoetan buruzagitza lana egin zuen Joxemik. Egin beharreko urratsak zehazteaz gainera, jende askorengana iristeko zubia zelako. «Guretzat, euskalgintzak zeukan erreferente sendoena eta osoena zen Joxemi, eta, horretaz gainera, itzal handia zuen euskalgintzako gune militanteetatik kanpoko zirkuluetan».

1988an, EKBk eta Ikastolen Federazioak Bateginik kanpaina egin zuten, euskara hizkuntza ofizial eta nazional gisa aldarrikatzeko. Kanpaina hori aurrera eramateko, diplomazia lan handiak egin behar izan zituzten, eta hor, beste behin, Joxemi zen gakoa. «Bateginik kanpainak, kontzientziatze kanpaina moduan lorpen handiak izan bazituen ere, etekin ekonomikoetan zorte txarra izan zuela iruditzen zait. Hasi zenean, giro nahiko ona zegoen denon artean halako kanpaina handi bat aurrera ateratzeko. Arazoa da orduan sortu zela Ajuria Eneko Ituna, eta Euskadiko Ezkerrak zirikatu zuela Ituna euskararen eremura ere eramateko, HB baztertzeko asmoz. Eta nahi zutena lortu ez bazuten ere, diplomazia lan izugarria izan zen bateraturik aurrera ateratzekoa». Hor ere Martin Ugaldereen sostengua jaso zuen.

1987-1993


Erronkak

erronkaren atzetik. Eta erronkak bota eta irabazi. Horixe izan zen *Argia*-ren ibilbidea 80ko hamarkadan. Baina ez zen zorte kontua izan: lan izugarria egin behar izan zuten horretarako. Proiektu asko jarri zituen abian *Argia*-ko taldeak. Egoki iruditzen zitzaaien ideiaren bat izanez gero, aurrera aterako zuten. Egoera horretarako aproposa ez bazen, urratsak egingo zituzten apropos bihur zedin. Eta urratsak zehazten espezialista zen Joxemi. Hurrengo erronka, hala ere, ez zen aurrekoak bezain segurua. 1987an, Joxemik hordagoa bota zuen: «Dugun guztia mahai gainean jarri eta euskarazko egunkari baten aldeko apustua egin behar dugu». Erronka hori gehiago ezin atzeratu zitekeela uste zuen. Heldu zela garaia.

80ko hamarkada osoa zeharkatu zuen eztabaida izan zen egunkari baten beharra. Artikulu, hitzaldi eta mahai-inguruak asko izan ziren han eta hemen, eta horietan eragile beti ageri zen *Argia*. Ez zen egunkari baten egitasmoa, beraz, gauza berria *Argia*-koen artean. Joxemari Ostolazak eta Joxemik kasik hamarkada bat lehenago begitantzen zuten euskarazko egunkari bat atera beharko zeneko egoera. Eta eskema jakinik gabe baldin bazen ere, *Argia*-ren azken urratsak aukera horri bidea zabaltzera zetozen. Taldean ez zegoen txosten idatzirik egunkariaren inguruan, baina denek zuten buruan. Ez zen, beraz, Joxemik izan zuen halako burutazio bat.

Aurretik beste saio bat ere izan zen, gainera. Eusko Jaurlaritzak 1986an pauso herabe batzuk eman zituen egunkariaren bidean. Euskarazko asteburuko egunkariei diru laguntzak emateko deialdia egin zuen. Baldintzak, nagusiki, bi ziren: astean behin ateratzea eta egunka-

rigintzatik sortua izatea. Astekarigintza ez zuen kontuan hartzen. Baina, hala ere, *Argia*-k aurkeztu zuen berea. Eta, horrez gainera, *Egin*-ek *Hemen* eta *Deia*-k *Eguna* jarri zituzten mahai gainean. Jakina denez, azken biak lagundu zituen Jaurlaritzak, eta *Argia*-rena atzera bota zuen, aintzakotzat hartu gabe. *Hemen* eta *Eguna* egunkari formatuko astekari bilakatu ziren, eta *Argia*-rentzat lehia desleial nabarmena izan zitekeela ematen bazuen ere, aldizkariak ez zuen minik hartu, eta, gainera, diru laguntza bukatu zen egunean desagertu ziren. Ez zuen, beraz, esperientzia horrek emaitza handirik eman euskarazko egunkari baten bidean. *Argia*-k aurkeztu zuen proiektua Joxemik idatzi zuen, hain luzaz eta hainbestetan taldean hitz egindakoa jasoz. Ez zuen etsi nahi izan, atzera bota zutenean. Esperientzia hartatik irakaspena ateratzen asmatu zuen, eta egitasmoa eraldatu egin zuen, baina helburua bera zuen: euskarazko egunkaria.



1981

Argia Eguna euskarazko egunkari baten beharra aldarrikatzeko baliatu zen 1988an. Motorra berotzen hasteko garaia zen.

Argi ikusi zuen euskarazko egunkaria kultur eta politika sektore ahalik eta zabalenak inplikatzearen bidetik etorriko zela. Eta hori izan da EGUNKARIAREN oinarria, eta horixe Joxemiren ideia. Jende andanak egin du lan EGUNKARIA sortzeko; jarri du dirua, eman du sostengua. Baina gurutetik tiratu zuena Joxemi izan zen. «Bera ez balego, ez legoke egunkaririk; hori seguru dakit», dio Josu Landak. Iñaki Uriak EGUNKARIAREN aitatasuna aitortzen dio Joxemiri, «argi eta garbi». Joxemarik ez daki Joxemi tematu ez balitz egunkaririk egongo ote zen, baina badaki dagoen egunkaria ez zela izango. Joan Mari Torrealdaik ere ziurtzat jotzen du hura gabe ez zela EGUNKARIA izango. «Hori segurua da, eta ez bakarrik egunkaria hartu zuelako bere gai propio gisa, baita aurrera eramateko moduagatik ere». Apustu gogorra bota zuen ordurako *Argia*-k Mundaiz bidean zuen egoitzan: dena mahai gainera. Galdu edo irabazi.

Tartean, Joseba Arregiren inkesta famatu bat izan zen. CIES etxeak, Kultura Sailak eskatuta, euskarazko egunkari baten inguruko galdeketa egin zuen. Hori gauza jakina zen, baina emaitzarik ez zen argitara agertzen. Jaurlaritzak ez zuen haren berri eman nahi. *Argia*-k emaitzak lortu, eta 1989ko urrian argitaratu zituen aldizkarian. Argi geratu zen euskarazko egunkari bat bideragarria zela. Zertarako gehiago itxaron? *Argia*-n erabaki zen egin egingo zutela. Eta euskalgintzako indar gehien biltzeko asmoz, Euskal Kultur Erakundeak (EKB) deituta lehen bilera egin zen Donostian, Barandiaran lizeoan, azaroan. Baiezkoa atera zen handik, egin egin behar zela. Bigarren bilera abenduan egin zen, Durangoko Azokaren inguruan, eta han balizko egunkariaren oinarri nagusiak izango ziren 11 puntuen berri emango da: euskaltzalea, nazionala, baterakoia, zabala, alderdi politikoetatik independentea, erdarazko medioetatik independentea, ez-instituzionala, erakundeek diruz lagundua, militantea eta berria. 1990eko urtarrilean, EGUNKARIA abian jarriko zuen Egunkaria Sortzen talde eragilea sortuko da.

EGUNKARIAREN bide malkartsua

Ordurako ez zegoen atzera bueltarik. EGUNKARIAK hamabi hilabete besterik ez zuen behar izan kalean egoteko, baina bidea malkartsua eta zentzibaitetan oso gogorra izan zen. Bide horren latza Joxemik bakarrik ezagu-



1981 Joxemik bereziki landu zuen Martin Ugalde EGUNKARIAREN egitasmora erakartzeko saioa. Baita lortu ere. Ugaldek honelaxe esan zion: «Zugatik sartu naiz hemen».

tu zuen hainbatetan. «Egunkaria sortu baino lehenagoko hamabost hilabeteak oso gogorrak izan ziren Joxemirentzat. Buruan sartu zitzaionetik kaleratzea lortu zen arte, oso bide zaila izan zen. Ikaragarri zaila maila diplomatikoan, teknikoan eta pertsonalean. Asko sufritzea tokatu zitzaion. Hiru zailtasun horiei aurre egiteko eta egitasmoa burura eramateko gai izango den besterik egongo da, baina nik ezagutu ditudanetik inor ez zatekeen gai izango prozesu hori burura eramateko». Josuk oso gertutik bizi izan zuen EGUNKARIA sortu aurreko garaia.

Kultur taldeak, irakaskuntza alorreko erakundeak, euskalgintzako taldeak, sindikatuak, alderdi politikoak, erakundeetako agintari politikoak eta gizarte mailako egiturak. Denak zeuden Joxemiren agendan, eta horietako askorekin bildu zen. Herriz herri, taldez talde. Izan ere, proiektuaren lehen urratsa hori zen: EGUNKARIA posible zela uste osoa izatea, eta jendea horretaz konbentzitzea. Eta horretan buru-belarri aritu ziren, ez Joxemi bakarrik, baita *Argia*-ko talde osoa ere. Trabak handiak izan ziren, mingarriak askotan, bai zenbait erakunde politikoren aldetik, bai euskalgintzako hainbat talderen partetik ere.

Martin Ugalde: "Zugatik sartu naiz"

Prozesuak bi mugarri izan zituen, eta bietan Joxemik zuzen-zuzenean hartu zuen parte. Lehena, Joxemik izan zuen intuizio bati jarraiki, egunkariak kulturgintzako eta euskalgintzako esparru ahalik eta zabalenetik sortua behar zuela izan erabaki zenean gertatu zen. Hau da, ahalik eta agente gehien bildu behar zen proiektura. Eta horrek *Argia*-rekiko jarraipena izateko ideiarekin haustea ekartzen zuen. Proiektua *Argia*-n erditu zen, baina biziko bazen, autonomo behar zuen izan. Hori izan zen Joxemiren pentsamendua, eta hori Egunkaria Sortzen-en filosofia. Horrenbestez, kasik hutsetik abiatutako proiektua izan zela uste du Josuk. Bigarren mugarria, Joxemik Martin Ugalde proiektura ekartzea lortu zuenean gertatu zen. Joxemi bereziki eta pertsonalki joan zen Ugalderekin bila. Haren baiezkua jasotzean, arnasa lasai hartu ahal izan zuen, eta proiektuari bultzada handia eman zion. Ametsa zen egitasmoa gauzatzeko bidean zihoan.

Ugaldek oso gogoan du Joxemik proposamena egin zionekoa. Etxera joan zitzaion *Argia*-ko urtekarirako elkarrizketa bat egitera, egunkariaren aukeraren gainean. 1989ko udazkena izango zen. «Kontu horretan noraino joango ote nintzatekeen jakin nahi zuen», azaldu izan du Ugaldek. «Ea haiekin lan egingo ote nuen galdetu zidan; ea buruetako bat izango ote nintzen». Proposamena bi aldiz pentsatu zuela aitortu du Ugaldek, proiektuaren zailtasunak ikusten zituelako eta zein bide hartuko zuen jakin nahi zuelako. «Konbentzitu egin ninduen Joxemik, hain kapaz lanean, hain zabal eta garbia bere planteamenduetan. Eta nik behin batean baita berari aitortu ere: 'Zugatik sartu naiz hemen. Badakit zuk emandako hitza beteko duzula'. Eta ez zait sekula damutu». Ordurako, Ugalderentzat Joxemi ez zen bere lagun Zumalaberen seme gaztea soilik. Joxemi kide zuen euskararen aldeko borrokan. «Euskararen militantea zen; euskararengan fedea zuen gazte militante nekaezina. Militantea, ez politikoaren zentzuan, erlijio baten antzeko sinesmenari



1989

Joan Mari Torrealdai eta Martin Ugalde lagun hartuta, EGUNKARIAren egitasmoa behar zen leku guztietan azaldu zuen Joxemik.

dagokion zentzuan baizik. Hori zuen bokazioa gaztetxo zenetik. Buruz oso argia zen, bihozberoa, aise nekatzen ez diren horietakoa; apala oso, eta gizona, buruz, zentzuz eta kuraiaz ongi hornitua».

Berdin gertatu zitzaion Karlos Santamariari ere. Hamasei-hamazazpi urte zituela eskolak ematen zizkion gaztea izateari utzi, eta Joxemi gogaide bihurtu zitzaion. Santamariarekin bereziki Joxemik harreman estua izan zuen. Estimua handia zioten elkarri, biak ala biak oso antzekoak zirelako gauza batean: urratsak egin eta ekimenak antolatu zale ziren. Ekintzaileak. Eta militanteak.

Arlo diplomatikoa aurrera ateratzeko taldea osatua zegoen, horrenbestez: Joxemi bera, Martin Ugalde, Karlos Santamaria eta Joan Mari Torrealдай. Azken horrek gogoan ditu hainbat bilera, oso latzak. «Joseba Arregirekin, artean Kultura sailburu zela, tentsio handiko bile-rak izan genituen. Aurrean ezetz biribil bat genuen». Baina ez hori baka-rrik. Jaurilaritzak beste egunkari bat egingo zuela bota zuen erronka. Euskaldun jendea erdibitzea bilatzen zuen jokaera horrek, eta lortu ere lortu zuen, hein batean. Erakunde politikoetatik kanpo ere egoera ez zen samurra. «Asko hitz egin eta erakutsi behar izan genuen».

Proiektua diseinatu eta menderatu

Bileretan Joxemik eramaten zuen beti ekimena. Ugaldek sarrera eta mar-koa egiten zuen; Joan Marik elkar hartzean jartzen zuen indarra, eta Joxemik egitasmoa bera aurkezten zuen. «Joxemi oso zorrotza zen, dia-lektiko peto-petoa. Ez zuen sekula altxatzen ahotsa. Irainik ez zuen seku-la botatzen. Argudioetara lotzen zen, baina amore eman gabe. Eutsi egi-ten zion markatutako ildoari. Ezagutu dudak dialektiko abilenetako bat izan da». Joan Mariren ustetan, hala ere, Joxemiren ekarria «egunkari baten proiektu bat definitu eta proiektu horrek dauzkan alor guztiak menderatzea» izan da. «Prentsaren egitekoa, pertsonalaren arazoak, egunkariaren kokagune sozio-politiko-kulturala, arazo administrati-boak, juridikoak, teknikoak... Dena oso ondo menderatzen zuen». Ez zituen alferrik hainbeste urte eman ideia horrekin buruan.

Egoera latzak izanagatik, gutxitan odol txartuko zen. Beti irtenbi-de bila jartzen zen: «Kontua gure proiektua aurrera ateratzea da». Hori



1990 Hilabeteak aurrera zihoazen, eta egunkariaren egitasmoa gero eta zehaztuago zuten. Jada ez zegoen atzera bueltarik.

esaten zuen behin eta berriz. Hori zuen buruan beti, kasik obsesio bat bezala. Ordu guztiak horretara jarria. Loari orduak kenduz. Argi ikusten da Joxemiren euskararekiko engaiamenduak berdin zuela maitasunetik eta egin beharraren obligaziotik. Egin behar bazuen, egin egingo zuen. Hori zen barrenak eskatzen ziona. Ezina ekinez egina.

Joxemiren entregaren adierazgarri da hurrengo argazki hau: uztailaren 14a da, gauerdia aspaldi jota, eta Joxemi *Argia*-ko erredakzioko muntatze mahaian dago, biharamuneko festa erraldoian banatuko den zero alea muntatzen, garai zaharretako lanetara bueltatuta une batez. Aldamenean Ostaizka du, neska-laguna. Baita *Argia*-ko lankideak eta egunkariaren egitasmora bildu diren asko ere. Gorbata etxean utzi du, eta betiko Joxemiren itxura du. Barrez ari da, txantxak egiten, kuterrarekin orrialde bat muntatzen ari den bitartean. EGUNKARIAREN lehen ale hura goizalderako kalean izango zela ikusteak zer gogoeta, zer sentimendu eragin ote zizkion?



Eskaileraren teoria

Bi aldeko eskailera baten irudia egiten zuen buruan Joxemik, bikote eta familia harremanak azaltzeko. «Umerik ez duzunean eta bikotekidearekin haserretzen zarenean, haserreak egun batzuk iraun dezake. Konpontzeko bidean, bakoitza eskailera batetik hasten da igotzen. Batek keinu bat egiten du. Maila bat igotzen du. Besteak zerbait esaten du. Beste aldeko beste maila bat igo du. Komentario bat hurrena. Eskua ukitu ondoren. Horrela, nor bere eskaileratik goraino iritsi arte eta haserrea konpondu arte. Umeak daudenean, eskailera ziztu bizian igotzen duzu, zeren umeak bainatu egin behar dira, edo afaltzen eman, edo...».

Azkenik, abenduaren 6an argitaratu zen EGUNKARIA. Joxemi oso erasanda iritsiko da EGUNKARIAREN lehen alea kalean jartzeko egunera. Baina lanean jarraituko du, eta ezinbestekoa izango da EGUNKARIAKO sailen arteko zubi lanak egiteko. Hori, zuzendaritza atalean zegoen aldetik. Baina, hori gutxi ez, eta EGUNKARIAREN plantxak *Egin* egunkariko errotatibara eramaten ere ibili zen lehen asteetan: autoan sartu eta korrika



1992

EGUNKARIAREN egitasmoan buru-belarri sartuta zebilela jaio zen Maddi, alaba zaharrena, eta EGUNKARIA sortu eta gutxira Jon txikia.

batean beti, erlojuaren kontra. EGUNKARIAREN sorrera prozesuaren tentsioari aitaren gaixotasun luzearen sufrimendua gehitu behar zaio. Baita Maddi jaiotzearen ezin kabituzko poza ere. Bi hilabete eskasera, hil edo biziko ebakuntza egin zioten.

Ebakuntza egin eta hilabete gutxira, lanean zen berriro. Ez zegoen geldi egoteko, eta ez ziren hor bukatu Joxemiren lanak eta buruhausteak. EGUNKARIA abian da, baina egoera ekonomikoa larria da, eta, gainera, ez du desblokeatzeko itxurarik. Joxemi Administrazio Kontseiluko ordezkaria da, praktikan enpresa kudeatzen duena. Iñakik gogoan du nola 1991ko udaberrian, igande batean, EGUNKARIAREN bulegoan bildu ziren, numero guzti-guztiak aztertzeko izugarrizko pazientzia. Baita txikiena ere, gastua nondik aurreratuko. «Txiki askok egiten dute handia», esaten zuen. Txikiaren argia.

Familia zabala

Lanean jarraitu zuen kasik bigarren ebakuntza egin zioten arte, 1992ko azarora arte. Ordurako lehen baino gehiago egoten zen etxean, baina lana eta ardurak ez zituen albora utzi. Lehen bilerak EGUNKARIAREN egoitzan egiten ziren, baina orain etxean antolatzen ditu. Esan dugu familiaren zentzu oso irekia zuela, eta neska-lagunaz eta bi seme-alabez gainera, Elkano kaleko etxean, lankide eta lagunak egunero zeuden bazkaltzen edo afaltzen. «Familia denak ginen: gu biok, umeak eta lagunak. Eta elkarrekin bizi ginen, ia egunero elkarrekin afalduz edo bazkalduz». Ostaizkak familia bizitza itxirik bizi izan duen irudipenik ez du. Beti zegoen lotua *Argia*-rekin, edo EGUNKARIArekin, edo lagunekin. Baita seme-alabak jaio eta gero ere. Maddi jaio zenean, Juanjo Landa eta Pello Iturain lagunekin zuen etxea utzi, eta Elkano kalean jarri ziren bizitzen. «Horburua pixka bat aldatu beharrean izan zen, eta ordutegi jakin bat gordezten hasi zen. Zertxobait familiarragoa zen giroa, baina lana etxera ekartzen zuen; bilerak afari giroan egiten ziren gurean».

Joxemik gaztetatik defendatu zuen familia tradizionalari alternatiba eman beharra, eta gutxi-asko bete zuen. Ezkondu, azken unean ezkondu zen, eta, nolabait, beharturik. Lehenengo ebakuntzaren bezperan izan zen. Hil edo biziko ebakuntza zenez eta denbora gutxi zegoenez,



1992

Umeak jaiotzearekin batera hasi zen Joxemi familia bizitza konbentzionalagoa egiten, baina ez gehiegi; etxean beti zeuden lagunak eta lankideak, familiako kide bailiran.

titulo mortis modura egin zuten. Hau da, urgentziazko ezkontza izan zen. Horixe baietz. Epaileak etxera agertuko zela abisu eman zuenean, Joxemi EGUNKARIAN zegoen lanean. Ostaizkak deitu eta zitzu bizian etxera etortzeko esan zion. Lekukoak lortu behar ziren ondoren. Antzerkitxoa muntatu behar izan zuten gero: pijama jantzi, ohean sartu, botika batzuk gau mahaiaren gainean jarri. Horrela errezibitu zuen epailea. Eta horrela ezkondu ziren. Maddi alabak beti esaten du aita pijama jantzita ezkondu zela.

Joxemi eta Ostaizkak Egin-en ezagutu zuten elkar, muntatze lanean zenbiltzala. Hippy itxura erabatekoa hartu zion Ostaizkak: harizko gal-tza zuri zabalak, jertse gorria eta txima luzeak. Ezagutu eta berehala hasi ziren elkarrekin ibiltzen. Lehen zita Ostaizkaren urtebetetze egunean izan zuten. Zarauzko Argiñano jatetxera gonbidatu eta opari bitxia egin zion: azkazalak pintatzeko esmalte berdea eta rimel potetxo bat. «*Cabaret* filmeko Liza Minelli gogorarazten didazu».

Detalezalea zen Joxemi. «Baita oso erromantikoa ere», Ostaizkaren begietan. Noiznahi etortzen zitzaion kaleko posturen bate-

an erositako belarritako parearekin edo lepoko batekin. «Oso hippyak beti». Beste behin, bizikleta arrosa bat erregalatu zion, saskitxo eta guzti. «Ni ez naiz sekula bizikletan ibili, baina. Ez dakit pamela bat jantzita belardietan paseatzen imajinatzen ote ninduen».

Uliako etxea utzi eta Elkano kaleko etxera aldatu zirenean, Joxemiren aitag zuzendu zituen zaharberritze lanak, Joxemik diseinua egin eta gero. Ostaizkak gogoan du hormetako kolorea aukeratzeko zernolako lanak eman zizkioten aita-semeek pintoreari. Hori ez da, bada, tonua, ezta beste hori ere. Pintorea nahasketak egin eta egin. Biak artistak izan, eta ez zuten etsi buruan zuten urdin grisaxka lortu zuten arte. Kolorea aitag aukeratu zuen, urdinak lasaitu egiten duela eta Joxemik hori behar zuela pentsatuta. «Aitaz asko fidatzen zen», gogoan du



1992

A benduan egin zuen EGUNKARIAK bigarren urteurreneko festa. Joxemi ordurako oso gaixo Azegoen, baina ez zuen huts egin nahi izan, eta medikuarekin agertu zen belodromora.

Ostaizkak. «Komunikazio handia zuten elkarrekin, oso harreman maitakorra. Errespetu handia zioten elkarri, baita bestearen jarrera ulertzeko gogoia ere». Joxemirentzat aita oinarri sendoa zen, eta asko larritu zen aita gaixotu zenean. Ebakuntza egina zioten ordurako Joxemiri. Bere gaixotasunarekin beti agertu zuen utzikeria aitarenarekiko obsesio bihurtu zen. Hamarren bat igotzen bazitzaion sukarra, izugarritzko garrantzia emango zion. Aita erietxera eraman zutenean, Koro arrebak bere gain



1992

Eeuskalgintzatik
eta euskal
prentsaren mundutik
haratago, herrigintzan
egin zuen bere ekarria
Joxemik, ez zuelako
euskararen borroka
naziogintzaren
borrokatik kanpo
ulertzen.

Arregiren dimisioa, euskaltzaleen elkarkidetzaren helburu

‘10 urte pasa dira, eta hemen ari gara botila erdi-betea edo erdi-hutsa dagoen eztabaidarekin’. Lerro horiekin hasi zuen Joxemik Joseba Arregiren dimisioa eskatzeko idazten hasi baina amaitu gabe utzi zuen artikulua. Hil aurretik egin beharreko asmoen zerrendan zuen idatzi hori. Arregik EGUNKARIAREN inguruan izandako jarrerarekin oso minduta zegoen. Argi zuen Arregi Kultura sailburu zen bitartean EGUNKARIAK ez zuela xentimorik jasoko. Eta EGUNKARIAK ezinbesteko zuen dirulaguntza, eta, gainera, legez zegokion.

Martin Ugalderi eman zion artikulua berri, euskaltzaleek Arregiren dimisioa eskatzeko nahiko arrazoi bazela pentsatuta. Ugaldek ondo ezagutzen zuen Arregiren jarrera, bilera askotan Joxemirekin batera izana baitzen harekin. Horietako bat biziki gogorra izan zen. Horrela gogoratzen du Ugaldek: “Gure diru guztiak nondik nora atereak ziren ikus zezan, EGUNKARIAKO sos kontuen paper guztiak erakutsi genizkion. Eta gurekin lan egiteko esan genion, berdin Kontseiluan, berdin bere langileak lanean jarrita”. Hurrengo bilera baterako geratu ziren. Arregik ez zuen kexarik izan proposamenaren inguruan, baina laguntza ukatu zien. “Badakit Arregi harrituta geratuko zela paper haiek aztertuta, zein garbi eginda zeuden, teknikoki zein prestatuta. Egiaztatzeko errazak. Arregik ez zigun kexa zehatzik azaldu, ez zigun adierazi zer iruditzen zitzaion gaizki, mamuak zekusala esan zigun. Gerra garaia eta Francoren pean nahikoa adituta nago gorriak ginela eta halakoak. ‘Nahikoa da’ esan nuen nik, ‘ez zait mamu gehiago golkoan sartzen’”. Ugaldeak bileratik hanka egin zuen, eta han geratu ziren Joxemi eta Joan Mari Torreal dai Arregiren aurrean berunezko isiltasun baten pean. ‘Arregik kontrolatzen ez duen ezer ez du onartzen’, idatzi zuen Joxemik amaitu gabe utzi zuen artikuluan.

hartu nahi izan zuen haren zaintza, ikusirik Joxemi gaixo zebilela eta EGUNKARIAREN ardura gainean zuela. Joxemi haserretu egiten zitzaion. Ezin zuen aitaren zaintza inoren esku utzi. «Ezin zuen onartu horretan ni gehiago izatea. Eta hor ere egon zen». Aitaren heriotzarekin egonarri sendo bat galdu zuen Joxemik. 1992ko otsailaren 12an hil zen.

Ama, berriz, handik bederatzi hilabetera zendu zen, azaroaren 29an, Joxemi hil baino hilabete eta erdi lehenago. Ama-semeen arteko atxikidemendua ezin gordinago agertzen du hurrengo pasarteak: Joxemi minbiziak jota, atzera bueltarik gabe erietxean zegoenean, ama egunero joaten zitzaion bisitan. Koro arrebak, anaiaren egoera ikusita, bazkaloste batean mahaian ama eta bera bakarrik geratu zirela aprobetxatuz, Joxemi ezingo zela hartatik atera adierazi zion, nolabait, amari. Zetorrenerako pixka bat prestatu nahi zuen. Hori entzun zuen unean, buruko odol isuria emanda, isilik eta geldirik geratu zen ama. Astebetera hil zen. Aste horretan Joxemi erietxean zegoen eta behin eta berriz galdetzen zuen amaz, joaten ez zelako harrituta. Gripea zuela esaten zioten. Azkenean hil zenean, Koro eta Ostaizka neska-lagunak azaldu zioten gertatua. «Amatxo hil dela? amatxo hil dela?», ezin sinetsirik, ezin etsirik, Joxemik barnean zuen umea eta gizona. 'Heriotza oso presente izan dut. Etorkizunik eza sortu zait. Batu zaizkit gauza negatiboak, baina ez desesperantza'. Hil aurreko egunetan Joxemik idatzitako oharrek dira, tapa beltzekiko koadernoan.

«Bi urtez iraunez gero, irabazi dugu», esaten zuen Joxemik. EGUNKARIA ebidentzia handia izaki diru laguntzarik ezin ukatuko ziotelako pentsatzen zuen. Justu epe hori igarota hil zen, baina ezin jakin hainbeste lan, kezka, sufrimendu eta poz eman zion egunkariak apustua irabazi zuela jabetu ote zen. Bere barreneko onena emanda, baina oraindik onena ezagutzeke geratu zen. Joxemik bere aurreikuspen eta analisisetan ez zuela huts egin argi ikusten da orain. Joxemik argia egiten jarraitzen du, eta bere itzala gero eta luzeago agertzen zaigu. Eguzki batek baino argi txikiagoa eginagatik, itzal luzeagoa egiten zuen ipurtagiaren alegia egin bihurtu du Joxemik.

Pintore izateko desioa



Pintura

zuen Joxemik benetako bokazioa. Eta imajinatzen zuen bere burua pinturari emana eta erakusketak egiten. Parisera egin zituen bidaietako batean, bi egun oso pasatu zituen pinakotekak eta arte galeriak bisitatzen. «Bere burua han ikusten zuen, eta 'noiz izango dut modua pinturari emateko?' galdetzen zuen». Erretiroa hartutakoan pintore izango zela esaten zion Ostaizka Irastortza neskalagunari. Kontua da Joxemi inoiz erretiroa hartzeko prest egongo ote zen. Berak ere benetan serio hartzen ez zuen asmoa askotan aipatzen zuen: «Urtebeteko lanuztea hartuko dut pintatzeko». Aitari inbidia handia zion, pintore ere izatea lortu zuelako. Koadro bakarra pintatu zuen, eta hura bukatzeke utzi, gainera, nahiz eta 1970ean hasi zuen. Metro eta erdi luze zen oihalaren goiko aldea baino ez zuen margotu.

Marrazkiak egitearekin konformatu behar. Marrazkiak eginez hartzen zuen atsedea, eta atsegin. Une oro marrazkiak egiten ari zen, mantelean, koadernoetan, txostenetan, eskemetan, paperezko ezpain zapietan. Beti bolaluma eskuetan, eta ezin eskuak gelditu eduki. Bazkaritan ere paperezko mantelean marraztuko zuen hitz egiten ari ziren gaiari zego-kion eskema; ondo apaindua, gainera, marrazkiekin. Bazkaltzen bukatu, mantel zatia moztu eta poltsikora. *Argia*-ko azal asko egin zituen; baita liburu eta diskoetako batzuk ere. Kartelak, *collage*-ak, logotipoak, ilustrazioak, eskupaperak. Horrelako eskaerei ez zien inoiz ezezkorik esaten. Josu Landarekin batera kaleratu zuen *Ipurtargi beltza* poesia eta marrazki liburuaren egin zituen marrazki lanetan kuttunena zuen.



Liburu azalak egitea oso gustuko zuen. Josu Landarekin batera 'Ipurtargi beltza' liburuua **L**egin zuen, gainera. Rafa Egiguren adiskide minaren liburuak ere ilustratu zituen.




Gustura geratu zen Joxemi Eltzegor-en diskorako **G**azal hau egin eta gero. Gainera, bere hitz batzuk ere musikatu zituen taldeak lan honetarako.





Argia'-ko azalak asko **A**egin zituen. Izan ere, 'Zeruko Argia'-n aldizkaria muntatzen eta azalak diseinatzen hasi zen. Diseinu bikainak egin zituen Joxemik.



Marrazkiekin ilustratzen zituen 'Argia'-ko orrialde asko. Erakunde, talde eta ekimen askotarako egin zituen irudiak; EKBrentzat egindako logotipoa adibide.







Marrazkiak eginez ematen zion atsedeen buruari Joxemik. Atsedeen, eta atsegin. 'Argian', 'Pelix eta Mixerix' tira argitaratu zuen 1984an.





*A*maitu gabe utzi zuen koadroa ageri da goiko irudian. Hori da olioan egin zuen lan bakarra. 'Collage'-ak, berriz, mordoxka bat egin zituen.



Euskara nazio gisa



Oinarriak,

hiru zituen Joxemiren pentsamenduak: euskalgintza, naziogintza eta herri mugimenduak. Herrigintzaren hiru adar desberdin, baina elkarrekin lotuta garatu beharrekoak. Joxemik ezin uler zezakeen euskalgintza naziogintzatik aparte. Arazo linguistikoa eta kulturala arazo nazionalaren barnean kokatzen zituen; areago, naziogintzaren oinarriko osagarritzat jotzen zituen. Alegia, euskararena arazo politikoa dela, hein handi batean. Baina, era berean, Euskal Herria politikoki burujabe izango bada euskararen oinarritutako kultura bat garatzea ezinbestekoa ikusi zuen. Harreman dialektiko horretan herri mugimenduak funtsezko eragileztat jotzen zituen. Joxemiren pentsamenduak marxismoa du oinarrian, baina urrats bat aurrera eginda, hizkuntza eta kultur arazoak filosofia marxistan integratzen jakin zuen.



Joxemiren ekarria bere jardun praktikoan adina ikus daiteke bere pentsamenduan. Egoeraren ikuspegi osoa zuen, nondik zetorren eta nora jo behar zen analizatzeko gaitasun nabarmena agertu zuen behin eta berriz. Bere pentsamenduak osotasuna oinarri izateagatik, euskalgintzan bezala naziogintzan erreferente argia zen Joxemi. Umezurtz gertzearen sensazioa jende, talde eta erakunde askok izan zuen, horrenbestez, Joxemi zendu zenean. Joxemiren pentsamenduaren isla dira ondoren datozen bere hitz hauek.



“Herri honek nazio bilakatu nahi baldin badu, hizkuntza nazionallean oinarrituriko kultura bat garatu behar du, eta kultura horretan bere izate nazionala egituratu. Eta hori da, finean, euskaldun abertzaleak duen proiektu nazionala; hots, nazio honek bere egitura, bere subiranotasun eta bere kultura nazionala lortzea. Herri gisa. Euskarak nagusitzeko behar dituen bitartekoak euskaraz ez dakitenen aurkako zapalkuntzarik gabe eskuratzuz”



“Nazionalismo espainolaren tranpa, finean, azken berrogeita hamar –edo ehun eta berrogeita hamar– urteotan gertatutako historia ahaztea izan da, eta gaur egungo errealtatea bat-batean sortutako zerbait bailitzan ikustea eta bitarteko berak ematea batzuei zein besteei. Hau da, erdarak egitura sozial guztiak dituenean, Espainiako konstituzioak obligatu egiten gaituenean erdara ikastera, euskararen aldeko joera guztiak diskriminatzaileak direla esatea tranpa handi bat da. Orain hizkuntz koofiziala dugu euskara, besterik ez. Ez dauka nazio-hizkuntz estatusik. Ez da nagusia, ez lehena. Eta euskara biziko bada, beharrezko da estatus hori lortzea”



“Bertako ez-euskaldunak eta etorkinak irabazi behar ditugu euskararen alde. Hori oso borroka garrantzitsua da guretzat, eta nik uste dut egon dela, euskarak jasaten zuen erasoaren aurkako erreakzioz, halako itxitasun bat, uzkurdurako joera bat. Eta jo behar dugu euskaragatik bertatik sortzen den jarrera politikoko batekin, jende hori irabaztera”

“Urgentzia dugu erabaki garrantzitsuak hartzeko, eta, historiak gaur egun daraman abiadura kontutan hartuz, are handiagoa. Plangintza orokor bat behar dugu; gauza batzuk bost urtera, beste batzuk epe luzeago batean arautu beharko lirateke. Erabaki politiko funtsezko bat euskararen aldekoa, hori dugu urgentea. Eta erabaki horiek hartzeko ahalmen politikoa behar beharrezkoa daukagu. Eta hor datza gaur egun euskarak daukan ahulezia, daukan postua, eta hori lortu behar dugu, eta azkar lortu”



“Kontua da eskubide indibidualak eskatzen direnean zure problema konpontzen dizutela. Egin dezakete ETB, eta irits daiteke garai bat zinema euskaraz ikusteko aukera ere izango duguna; irakurtzeko oraindik egunkaria ez baina astekaria ere badugu. Nolabait, indioen erreserbetan bezala euskaldun erreserba bat sortzea, eta hor euskaraz bizitzea. Toki batera joaten zarenean, leihatila batera esaterako, ekarriko dizute euskalduna zuri erantzutera, baina inguru guztia erdalduna izango da”



“Niretzat, komunikabideetan eta gainerako sailetan, lege orokorra, problema nagusia zera da: guk pauso bat ematen dugun bitartean, erdarek berrogeita hamar ematen dituztela. Guk izugarrizko ahalegina eginda, izugarrizko militantzian oinarrituta, pila bat jende ezer kobratu gabe edo gutxi kobratzen eta bizitza guztia horretara baldintzatu ondoren egiten dugu astekari bat gero eta duinagoa. Baina aldamenean erauntsi handi bat du”

“Hemen sortzen den komunikabide guztiei euskararekiko nolabaiteko gutxieneko batzuk betetzera behartzeko ahalmen politikoa izan arte, iruditzen zait ezingo dela ezer egin. Gure komunikabideak minorizatuak gelditzen dira, eta konpetentzia horretan herren, eskuak lotuta, eta baldintza guztien menpe utzi gaituzte, eta karrera oinez nahi dute egin 1 Formula preparatuta daukateneekin, eta gauzak horrela karrera beti galdua dugu. Ahalmen politiko nahikoa behar dugu lege batzuk egiteko eta Euskal Herrian eragin soziala daukaten komunikabideei hizkuntzarekin zor bat betearazi behar dutela gogoratu. Hori egin arte, jai daukagu”



“Frankismoaren garaian dena laguntzarik gabe egiten zen; jendeak bere poltsikotik jartzen zuen eta aurrera. Beraz, egiten zen gutxi horrek asko zirudien, esfortzu asko eskatu eta ilusio handiagoa mugitzen zituelako. Gero, zer gertatu da? Frankismotik, ezer ez etorri eta gainera erasoak jasan behar izatetik instituzioetatik laguntza bat jasotzera pasatzen garenean, nik uste irudikeria batek lausotu dizkigula begiak. Jendea nolabait moldatu egin da, funtzionarioz bete da gizartea, ikastolek ez dute lehen beste diru beharrik Autonomia Erkidegoan, ondo dabilta. Orduan, indibidualki, jendeak eta ikastola bakoitzak bere egoera eroso aurkitu du. Baina nazioaren osasuna, euskararen osasuna nazio gisa, horrek oso txarra izaten jarraitzen du”



Urtez urte



1950	Urriaren 14an jaio zen, Donostian.	
1953	Karmele Esnal andereñoarekin ikastolan hasi zen.	
1955	Elbira Zipitria andereñoaren ikastolara pasatu zen.	
	<i>Euskaltzaindiak Gerra Zibilaren osteko lehen kongresu irekia egin zuen, Arantzazun.</i>	1956
1958	Donostiako boy-scoutetan sartu zen.	
	<i>ETA erakundea sortu zen.</i>	1958
1960	Santo Tomas Lizeo zabaldu berrian batxilergoa hasi zuen.	
	<i>Espainiako Informazio eta Turismo Ministerioak debekatu egin zuen 'Zeruko Argia'.</i>	1960
	<i>ETako zapi kideren kontrako lehen gerra kontseilua egin zen.</i>	1961
1962	Artzaiak taldea sortu eta bertako kide egin zen.	
	<i>Enbatak gerren osteko lehen Aberri Eguna antolatu zuen, Itsasun.</i>	1962
	<i>'Zeruko Argia' berritu eta astekari bihurtu zuten.</i>	1963
1965	Goi Ikasketen Akademiara joan zen batxilergoa bukatzera.	
	<i>Gabriel Arestiren 'Beste mundukoak eta zoro bat' eskaini zen Donostian. Euskal antzerki berriaren mugarriztat hartu zen.</i>	1965
1966	<i>Zeruko Argia</i> -n lehen artikulua argitaratu zuen, Hemen, gazteagoak sailean.	

	<i>Gaur artista taldea sortu zen.</i>	1966
1967	Uztailaren 25ean, Joxemik, Antton Santamariak eta Jose Anjel Eizmendik idatzitako <i>Makina</i> antzezlanaren estreinatu zuen Kursaalaren Artzaiak taldeak.	
	<i>Ez Dok Amairu taldeak sekulako arrakasta lortu zuen Bartzelonan.</i>	1967
1968	Udazkenean Bartzelonara joan zen, Arkitektura ikasketak egitera.	
	<i>Guardia Zibilak Txabi Etxebarrieta ETAko kidea hil zuen, tiroka, ekainaren 7an. Bi hilabeteren buruan, Meliton Manzanasko polizi inspektorea eta torturatzailerik ezaguna hil zuen ETAk.</i>	1968
1969	Arkitektura ikasketak amaitu gabe utzi, eta Donostiara itzuli zen.	
1969	Kantaldi ez-legalak egiten hasi zen hainbat lagunekin batera, Imanol kantaria buru zutela.	
	<i>Uztailaren 10ean Rikardo Arregi istripuz hil zen.</i>	1969
	<i>ETA bitan banatu zen: ETA V eta ETA VI.</i>	1970
	<i>Abenduan Burgosko prozesua abiatu zen.</i>	1970
1971	ETA Vlan sartu zen.	
1972	Soldaduskara joan zen: Arakara lehenengo, eta Loiolara ondoren.	
1972	ETAren banaketa ondoren, Joxemi minoen taldean geratu zen.	
	<i>Ez Dok Amairu desagin egin zen.</i>	1972
1973	Ordizian lanean hasi zen: delineatzaile Gaztañaga galtzarategian.	
	<i>Minoak desagin egin ziren.</i>	1973
	<i>Espainiako Gobernuaren presidente Carrero Blanco almirantea hil zuen ETAk.</i>	1973

	ETA bitan banatu zen: militarra eta politiko-militarra.	1974
	Anjel Otaegi eta Juan Paredes Manot 'Txiki' fusilatu zituzten.	1975
	Franco hil zen.	1975
1976	Ordiziatik Donostiara itzuli, eta Egia Fotoconposición inprimategian jarri zen lanean.	
1976	Juanjo Landarekin jarri zen bizitzen Donostiako Ulia auzoan.	
	Poliziak bost langile hil eta ehunka zauritu zituen Gasteizen.	1976
	'24 orduz euskaraz' jaialdia egin zen Donostian.	1976
1977	Euskal Sukaldaritza Berriaren sorreran parte hartu zuen, ekimenari oinarri kulturalak jarriz.	
	Espainiako Gobernuak amnistia dekretatu zuen preso politikoentzat.	1977
	Ikurrina legeztatu zen Hego Euskal Herrian, eta gerra osteko lehen Aberri Eguna egin zen.	1977
	Batallon Vasco Españolek Migel Beñaran 'Argala' ETAko buruzagia hil zuen, Angelun.	1978
	Lemoizko martxa antolatu zen.	1978
	Hego Euskal Herriak ezezkua eman zion Espainiako konstituzioari.	1978
1979	Zeruko Argia-n hasi zen lanean.	
	Gladys del Estal hil zuen Poliziak Tuteran, Lemoizen aurkako martxa batean.	1979
	Gernikako Autonomia Estatutua onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoa sortu zen, Nafarroa kanpoan utzita.	1979
1980	Sukaldaritza ikastaroa egin zuen Karlos Argiñanorekin.	
1980	Joxemari Ostolazarekin batera, kaputxinoei Zeruko Argia aldizkaria erosi eta Argia sortu zuen.	

	<i>Martin Zabaleta Everesteko tontorrera heldu zen eta munduaren gailurrean ikurrina jarri zuen.</i>	1980
1981	<i>Argia</i> -n lan talde berria osatu eta aldizkaria abian jarri zuen.	
	<i>Joseba Arregi torturaz hil zuen Guardia Zibilak, eta Jose Maria Ryan Lemoizko zentral nuklearreko ingeniaria bahitu eta hil zuen ETAk.</i>	1981
	<i>Estatu-kolpe saioa izan zen Espainian.</i>	1981
	<i>Telesforo Monzon hil zen.</i>	1981
1982	Ostaizka Irastorza ezagutu zuen, bere seme-alaben ama izango zena.	
	<i>'Anaitasuna' euskarazko aldizkaria desagertu zen, hogeita hamar urte eta gero.</i>	1982
	<i>Elbira Zipitria ikastolen bultzatzailea hil zen.</i>	1982
	<i>Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) sortu zen.</i>	1983
1984	Apika informatika enpresa sortu zuen, lankide batzuekin batera, aldizkariari doako azpiegitura informatikoa emateko. Joxemi gerente lanetan hasi zen.	
	<i>Santi Brouard HBko burua hil zuen GALEk.</i>	1984
	<i>Mikel Zabalza hilda agertu zen, Poliziak atxilotu ostean.</i>	1985
	<i>Joseba Sarrionandia eta Iñaki Pikabeak ihes egin zuten Martuteneko espetxetik.</i>	1985
	<i>NATOr buruzko erreferendumari ezezkoa eman zitzaion Hego Euskal Herrian.</i>	1986
1988	Antza inprimategia sortu zuen Argia taldearekin, aldizkariari sostengu emateko asmoz.	
1988	Euskarazko egunkari bat abian jartzeko lanetan jarri zen buru-belarri.	
1988	Maddi alaba jaio zen.	

	ETAk eta Espainiako Gobernuak Aljerko elkarriketak hasi zituzten.	1988
1989	EGUNKARIA martxan jartzeko lanen eragile eta zuzendari aritu zen.	
	Egunkaria Sortzen ekimena osatu zen.	1989
	Abenduaren 6an EGUNKARIA jaio zen.	1990
1991	Otsailean hil edo biziko ebakuntza egin zioten.	
1992	Jon semea jaio zen.	
1992	Azaroan bigarren ebakuntza egin zioten.	
	Eusko Legebiltzarrak EGUNKARIARI diru laguntzarik ez ematea erabaki zuen, eta Joseba Arregi Kultura sailburuak ez zuela lagunduko esan zuen.	1992
1993	Urtarrilaren 12an hil zen, 42 urte zituela.	
	Ekainean, EGUNKARIAK eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten.	1994

Argiñano, Karlos

Sukaldaria. Joxemiren adiskidea.

Arzak, Joan Mari

Sukaldaria. Joxemiren adiskidea.

Barandiaran, Jon

Joxemiren adiskidea eta lankidea *Argia*-n eta EGUNKARIAN.

Barandiaran, Marta

Joxemiren garai bateko neska-laguna eta hainbat kultur ekimenetako kidea.

Iñigo, Joxe Jabier

Kontseiluko plangintza burua. Joxemiren lankidea eta adiskidea EKBn.

Irastorza, Ostaizka

Joxemiren neska-laguna eta bere bi seme-alaben ama.

Egiguren, Rafa

Idazlea. Joxemiren ikaskidea eta adiskidea nerabezarotik.

Iturain, Pello

Joxemiren etxekidea eta adiskide mina.

Landa, Josu

Idazlea. Joxemiren lankidea eta adiskide mina *Argia*-n eta EGUNKARIAN.

Landa, Juanjo

Ikus-entzunezkoen produktore. Joxemiren etxekidea eta adiskide mina.

Ostolaza, Joxemari

Joxemiren lankidea eta adiskidea *Zeruko Argia*-n, *Argia*-n, Apikan eta Antzan.

Santamaria, Antton

Kimikaria. Joxemiren adiskidea txikitatik, eta hainbat kultur ekimenetako kidea.

Sarasola, Kintxo

Ekonomilaria. Joxemiren gaztaroko adiskidea eta hainbat kultur ekimenetako kidea.

Torrealdai, Joan Mari

Jakin-eko zuzendaria eta EGUNKARIAko Administrazio Kontseiluko lehendakaria. Joxemiren lankidea eta adiskidea EGUNKARIAN.

Ugalde, Martin

Idazlea eta kazetaria. Joxemiren lankidea eta adiskidea.

Uria, Iñaki

EGUNKARIAko Administrazio Kontseiluko kontseilari ordezkaria. Joxemiren lankidea eta adiskide mina *Argia*-n eta EGUNKARIAN.

Zubiria, Pello

Argia-ko Zuzendaritzaren albokoa. Joxemiren lankidea eta adiskidea *Argia*-n.

Zumalabe, Koro

Euskara teknikaria. Joxemiren arreba eta lankidea hainbat ekimenetan.

Joxemiren inguruko testigantzak, oroitzapenak, gertaerak eta anekdotak eskuzabaltasun osoz eskaini dizkidaten guztiei nire eskerrik sentituenak eman beharrean nago. Bai eta argazkiak, irudiak, idatziak, marrazkiak eta beste eskueran jarri dizkidaten hurrengoei ere: Koro Zumalabe, Ostaizka Irastorza, Ana Ibabe, Rafa Egiguren, Antton Santamaria, Juanjo Landa eta *Argia* aldizkariari. Ez ditut ahaztu nahi iradokizunak eta zuzenketak egin, eta laguntza eman didaten guztiak. Mila esker guztioi.

Lorea Agirre Dorronsoro (Beasain, 1968)
Informazio Zientzietan lizentziaduna da.
Argia astekarian hasi zen kazetaritza
lanetan 1988an. EUSKALDUNON EGUNKARIA
sortu zenetik bertako kazetari da. Kultura
sailean jardun du, kazetari gisa
lehenengo eta erredaktoreburu lanetan
ondoren. Honako hau bigarren liburua
du, aurretik Rosa Luxemburgen biografia
argitaratua baitu, Elkarlanean
argitaletxearen babesean.



Argi txikiak, handiak baino indar gutxiago izanagatik, egin beharreko bidea hobeto argitu dezakeela nabarmen utzi zuen Joxemik bizi zela. Joxemiren argi txikiak, ipurtargia bailitzan, uste baino txoko ilun gehiago argitu zituen. Argitu, eta, gainera, bidea ireki eta urratsa egiten lagundu zien askori, nola lagunartean, hala euskalgintzan eta herrigintzan. Ipurtargiak eman dezakeen itzala eguzkiak eman dezakeena baino luzeagoa izan daitekeela nabarmen utzi du Joxemik hil eta gero. Joxemi ipurtargi izatetik argi-begi izatera iritsi da.